**KIROLA: UNIBERTSITATEEN ARTEKO TXAPELKETA, ABIAN /11**
**KULTURA: TURISMOAREN GAINEKO BERRIPAPERA, KALEAN /15**

# Goienkaria



EGUBAKOITZA • 2003ko martxoaren 7a • IV. urtea • 101. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

**Goienka2a**
**Erotismoa, HUHEZIko Literatura Asteko protagonista**

**ARRASATE**
**Sindikatu gehienek bat egin dute Irakeko gerraren kontra /10**

**JON SARASUA** / IRAKASLEA
*"Euskal gizarte zibilaren energian oinarritutako etorkizuneko ikuspegian ez da inoiz sinistu"* **/8-9**

**ASTEKO GAIA:** KABLEA LUR AZPITIK DATOR /2-3

## Euskaltelek zuntz optikoa sartzen dihardu ibarrean

- *Urte amaierarako bost herritan kablea erabili ahal izango da*
- *Telefonoa, Internet eta telebista kable bidez eskainiko dira*

Euskaltel konpainiak kablea edo zuntz optikoa sartzen dihardu Debagoieneko lur azpian. Zertarako? Azpiegitura horrekin aukera handiagoak emateko debagoiendarrei. Internet askoz ere azkarrago ibiliko da eta telebista kable bidez ikusteko aukera egongo da. Hain zuzen, horiek dira abantailetako batzuk, baina ez guztiak, kablearen hedapenak gure ibarrean *e-debagoiena* egitasmoaren garapena ere ahalbidetuko du-eta. Urte amaierarako ibarreko bost herritan kablea erabiltzeko moduan izango gara. Herri txikietan, oraingoz, ez.



Iazko udaberrian hasi ziren Debagoienean kaleak zulatzen zuntz optikoa sartzeko. ENEKO AZKARATE

### ARRASATE
**Gazte bat hil da Udalarako bidean, moto istripuan**

Gazte arrasatear bat, 15 urtekoa, hil zen eguaztenean Udalarako bidean, moto istripuan. 16:45ean gertatu zen istripua: Udala auzotik behera zihoazen bi motok eta gorantz zihoan Mitsubishi mendiko auto batek elkar jo zuten. Hildakoa, J.B.N., lurrean etzanda geratu zen. Medikuak agertu zirenerako hilda zegoen. Beste motoan zihoan 14 urteko gaztea, A.G.S., hura ere arrasatearra, Debagoieneko ospitalera eroan zuten. Autoan zihoana ez zen zauritu.

### OÑATI
**Goiena Telebista ikus daiteke dagoeneko UHFko 28. kanalean**

Oñatin ere ikus daiteke GOITB. UHFko 28. kanalean sintonizatzen da. Joan den astean, Belarren izan ziren teknikariak, eta Murutik Belarreraino seinalea eroan eta handik Oñati osora zabaltzeko lanak egin zituzten. **/4**

### LANA
**Chinchurretako langileek itxialdian jarraituko dute**

Chinchurretako langileekiko elkartasun eguna egin zuten astelehenean Oñatin. Herriko enpresa garrantzitsuenek bat egin zuten LAB eta ELA sindikatuek deitutako lanuztearekin eta manifestazio jendetsua egin zuten Oñatiko kaleetan barrena. Langileek itxialdiarekin jarraituko dute datorren astean. **/4**

SPORTLAND
FORUM SHOPS
KIROLA ZEURE ESKURA
www.forumsport.com Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate



Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70
Audi

DEBAGOIENA/4-5 • IRITZIA/8-9 • HERRIZ HERRI/10 • KIROLA/11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

# Kablea lur a

## Euskaltel konpainiak zuntz optikoa sartzen dihardu Debagoieneko

MARIA AGIRRE

Banda zabala, kablea, zuntz optikoa. Erreportaje honetan askotan errepikatuko diren berbak dituzu. Hirurek ere kontzeptu bera adierazten dute. Berba baten esanda, Euskaltel konpainiak kablea edo zuntz optikoa sartzen dihardu Debagoieneko lur azpian. Zertarako? Azpiegitura horrekin aukera handiagoak emateko debagoiendarrei. Internet askoz ere azkarrago ibiliko da eta telebista kable bidez ikusteko aukera izango da. Hain zuzen, horiek dira abantailetako batzuk, baina ez guztiak, kablearen hedapenak gure ibarrean *e-debagoiena* egitasmoaren garapena ere ahalbidetuko du-eta.

**TELEKOMUNIKAZIOETARAKO BI ERREPIDE**

Orain arte Telefonica zen telekomunikazioetarako dagoen sare bakarraren jabea, eta azken urteotan sare hori beste konpainia batzuei errentan eman izan die, esaterako, Euskalteli. Orain, baina, bere jabetzakoa izango den sarea dihardu eraikitzen Euskaltelek, eta horretan dihardu Euskadiko hainbat herritan, tartean Debagoienean.

Bergara, Arrasate, Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatzako lur azpian zuntz optikoa sartuko du Euskaltelek. Herri batzuetan, gainera, badihardute dagoeneko lan horretan, kaleak zulatu eta kablea sartzen. Urte amaierarako herri horietan lanak bukatuta egongo direla uste du Euskaltelek.

**HIRU ZERBITZU KABLEAREKIN**

Zuntz optikoa lur azpian sartzen dihardutеn bitartean, Euskalteleko teknikariek etxez etxe dihardute, kableak eskainiko dituen aukeren berri herritarrei ematen. Kablea etxera iritsi ahal izateko lanak Euskaltelek ordainduko ditu, baina ondoren herritarrak aukeratu beharko du konpainiaren eskaintzaren bat kontratatuko duen edo ez.

Hiru zerbitzu eskainiko ditu Euskaltelek kable bidez: telefonoa, Internet eta telebista. Telefonoaren kalitatean ez da aldaketarik izango, baina bai Interneten, kable-modem izeneko sistemaren bidez askoz ere azkarrago nabigatu ahal izango da-eta. Aldaketak ere telebistan, kate mordoa ikusteko aukera izango da-eta kable bidez. Hori, jakina, kontratatuko den eskaintzaren araberakoa izango da.



Zehaztutako epeak beteaz dihardute Bergarako lur azpian zuntz optikoa sartzen, eta ekainerako lanak bukatuta izango dituztela espero du Euskaltelek.

*Bere jabetzakoa izango den sarea eraikitzen dihardu Euskaltelek hainbat herritan*

*Urte amaierarako Debagoieneko bost herritan kablea erabiltzeko moduan izango gara*

*Aurrerantzean, telefonoa, Internet eta telebista kable bidez eskainiko dira*

*Zuntz optikoak 'e-debagoiena' proiektua garatzea ekarriko du*

Euskaltel, bien bitartean, pozik dago bere eskaintza Debagoienean izaten ari den erantzunarekin. Zera esan digu Euskalteleko Sare Hornikuntzarako zuzendari Pedro Calvillok: "Etxebizitzetan kablea jartzeari dagokionez, %90ek baino gehiagok eman digute baimena. Euskaltelen eskaintzei dagokienez, Debagoienean %50era iritsiko garela uste dugu. Hori oso emaitza ona da guretako".

Banda zabalak, duda barik, aukera ugari ekarriko ditu, baina, Calvilloren iritziz, zuntz optikoak eragingo duen aldaketa herritarren araberakoa izango da: "Herritarrek kablearen zein erabilpen egingo duten, horren araberakoa izango da arrakasta. Banda zabalak aukera handiak ekarriko ditu, informazioa munduko edozein lekutatik eskuratu ahal izango dugu-eta. Azken baten, munduko edozein lekutan gauden inpresioa izango dugu".

**EUSKALTEL 'E-DEBAGOIENA' PROIEKTUAN**

Zuntz optikoaren zabalkundeak, bestalde, ibarrean *e-debagoiena* proiektuaren garapena ekarriko du, eta horren baitan Euskaltel konpainiaren ardura izango da Iparcom izeneko proiektua garatzea. Enpresen barne komunikazioan aurrerapauso handiak ekarriko ditu Iparcomek, Calvilloren iritziz: "Enpresako langileren bat kanpoan badihardu lanean, enpresarekin etengabeko hartuemanetan egoteko aukera izango du. Laster hasi nahi dugu proiektua garatzen, baina lehenengo enpresa bat aukeratuko dugu, esperientzia pilotua egiteko Debagoieneko enpresa batekin".

# azpitik doa

## hainbat herritan, ez guztietan hala ere, eta horrek kezka sortu du



GOIENKARIA

**JOXERRA AGIRREURRETA** / GATZAGAKO ALKATEA

## *"Ez garenez errentagarri, bazterrean utzi gaituzte"*

**Iaz, martxoan, aurkeztu zuten *e-debagoiena* proiektua Leintz Gatzagan. Herri hori aukeratuta, zuntz optikoa herri txikietara iristearen aldeko apustua egin zen. Urtebete geroago, berriz, eta diru arazoak tarteko, Euskaltel konpainiak ez du zilegi ikusten Debagoieneko herri txikietan kablea sartzea.**



**Oraingoz ez da kablea Leintz Gatzaga, Elgeta, Antzuola eta Aramaiora iritsiko. Zein da zure iritzia?**

Uste dut Euskaltel iruzur egiten ari zaigula. Izan ere, martxoan *e-debagoiena* proiektuaren aurkezpena Leintz Gatzagan egin zenean, herri guztietara iritsiko zirela esan zuten. Orain dela urtebete horretan sinisten zuten, eta orain ez. Negozio unitate gisa hartu gaituzte, eta ez garenez errentagarri, bazterrean utzi gaituzte.

**Dirua ei da arazo. Hiru milioi euro pasa behar direla.**

Herri horietan kablea sartzea errentagarri ez zela izango lehendik ere bagenekien. Gainera, ez dut uste sarea sartzea hainbesteko inbertsioa denik. Galdera da inbertsio hori ondoren Euskaltelendako errentagarri izango ote den.

> *"Aurkezpena Leintz Gatzagan egin zenean, herri guztietara iritsiko zirela esan zuten"*

**IÑAXIO ARREGI** / GOIENAKO ZUZENDARIA

## *"Aurten GOITB ere kablez jasoko dugu"*

**Banda zabalak eskainiko duen abantailetariko bat zera da: telebista kable bidez ikusi ahal izango dela askoz ere kalitate hobearekin. Ohiko telebista kateez gainera, beste hainbat eta GOITB ere eskainiko ditu Euskaltelek.**



**GOITB kable bidez ikusiko dugu?**

Bai. Euskaltelekoekin batzarrak egin ditugu, eta ados daude GOITB ere kable bidez eskaintzearekin. Asmo hori hitzarmen baten gauzatu gura dugu, eta Euskaltelekoek hitzarmena noiz bidaliko zain gaude. Uste dut aurten GOITBren seinalea kable bidez jasoko dela.

**Teknikoki inbertsiorik egin behar da?**

Goienak, behintzat, uste du ez duela dirurik jarri beharrik. Euskaltelek beste telebista kate batzuen seinalea hartuko badu kable bidez eskaintzeko, zergatik ez GOITBrena? Inbertsio txikiren bat egin beharko du Euskaltelek, baina ez handia, teknikoki erraza da-eta.

> *"Telebista seinalearen edo irudiaren kalitatea hobea izango da kablearekin"*

**Zuntz optikoarekin hobeto ikusiko da GOITB?**

Telebista seinalearen edo irudiaren kalitatea hobea izango da. Seguruagoa ere izango da kablearekin.

BERGARA

### Iaz, maiatzean, hasi zituzten kablea sartzeko lanak

**Zehaztutako epeak beteaz dihardute Bergarako lur azpian zuntz optikoa sartzen. Euskalteleko arduradunen esanetan, lanak bide onetik doaz. Gainera, herritar batzuk hasi dira banda zabala erabiltzen. Bergaran %40an kablea sartuta dago, eta obra zibila, bukatzear.**

**Hala ere, Bergaran ere bada zailtasunik: batetik, erdialdeko hainbat etxeren garrantzia dela eta, etxebizitzak babestuta daude eta ezin izango dute kablea edozein modutan sartu; bestetik, Komenio kalea galtzada-harrizkoa denez, Bergarako Udalak eskatu dio erdialdeko kale horretan galtzada-harriak banan-banan kendu eta ondoren berriz ere ipintzea. Kostu handiegia dela eta, oraingoz zati hartan ez dute kablerik sartuko.**

ARRASATE

### Gorabeherak Euskaltelen eta Arrasateko Udalaren artean

**Urrian hasi ziren kablea sartzen, baina Euskaltelen esanetan, handik gutxira geratu behar izan zituzten lanok. Euskaltelek dio azaroaz geroztik ez duela lanik egin Arrasaten, nahiz eta Udaleko Hirigintza Saila ez datorren bat adierazpen horrekin. Dena dela, azken egunotan alde bien artean hartu-emanak izan dira, eta Euskalteli lanean jarraitu ahal izateko lizentzia ematekotan da Udala. Hala ere, bada konpondu beharreko beste gai bat Arrasateri dagokionez: Euskaltelek kasu batzuetan kablea etxebizitzaren aurreko aldetik bideratzea proposatu du, eta Hirigintza Sailari irtenbide hori ez zaio egokia iruditzen. Eta beste aukera batzuk aztertzea eskatu diote kasu horietarako.**

OÑATI, ARETXABALETA, ESKORIATZA

### Hamabost egun barru hasiko dira lanak Oñatin

**Otsailean hasi ziren Aretxabaletan zuntz optikoa sartzen. Eta udarako bukatu gura dituzte lanok, ekainaren 30erako.**

**Oñatin ere hamabost egun barru hasi gura dituzte lanak. Dagoeneko proiektua eginda dute, herritarrei baimenak eskatzen ere hasi dira, eta, atzerapenik egon ezean, irailerako herri barruko lanak bukatuta egongo dira. Eskoriatzan, berriz, lanak Aste Santu ostean hasteko asmoa dute; hortaz, apirilaren bukaeran. Udalari eskatu beharreko baimenen gaia ere bide onetik doa Eskoriatzan, eta martxoan hasiko dira etxez etxe baimen eske. Hala, irailerako lanak bukatuta egongo dira herri horretan.**

LEINTZ GATZAGA, ELGETA, ANTZUOLA ETA ARAMAIO

### Oraingoz ez dute kablerik sartuko, 2007ra arte

**Euskaltelek dio oso garesti aterako zaiola herri horietara zuntz optikoa iristeko lanak egitea. Hiru milioi euro baino zerbait gehiagoko aurrekontua behar dutela-eta, dirua lortzeko hainbat erakunderekin harremanetan jarri dira. Europara jotzeko asmoa ere badute. Debagoieneko gainerako herrietarako 15 milioi euro pasa beharko dira. Hala ere, Antzuolatik eta Leintz Gatzagatik enborrekoa deritzona pasatzen da, baina Euskaltelen esanetan, sarea garatzea oso garesti irtengo zaio.**

**Bestalde, Elgetan, saneamendu obra batzuk egin direla-eta, banda zabala sartzeko aprobetxatu du Euskaltelek. Guztira zortzi kilometro, baina oraindik beste zazpi falta dira.**



ARGAZKI PRESS

Chinchurretako langileei elkartasuna adierazteko, manifestazio jendetsua izan zen astelehenean Oñatin.

# Chinchurretako langileek itxialdian jarraituko dute datorren astean

*Azkeneko batzarrean, beste jarrera batekin ikusi dute langileek enpresa*

OXEL EROSTARBE

**Chinchurretako langileekiko elkartasun eguna egin zuten astelehenean Oñatin. Herriko enpresa garrantzitsuenek bat egin zuten LAB eta ELA sindikatuek deitutako lanuztearekin. Langileek itxialdiarekin jarraituko dute datorren astean.**

Lanuztearekin batera manifestazio jendetsua egin zuten Oñatin. Chinchurreta enpresako langileen ordezkari Iñaki Usandizagak GOIENKARIAri adierazi dionez, "Oñatiarrengandik jaso dugun elkartasuna eskertzekoa da: 3.000 lagun inguruk hartu zuten parte manifestazioan eta bi orduko lanuztearekin enpresa garrantzitsuenek egin zuten bat. ULMA Forja eta Altuna enpresak kenduta, gainerako enpresa garrantzitsuenek zein txikiek eta dendek ia ehuneko ehunean egin zuten lanuztea". Manifestazioaren ostean itxialdia hasi zuten udaletxean.

**AZKEN BATZARREAN, JARRERA HOBEA**

Eguaztenean, Lan Ordezkaritzan enpresaren eta langileen artean izan zen batzarrean, enpresaren aldetik beste jarrera bat atzeman zuten langileek: "Aurrerapauso batzuk izan dira. Edozelan ere, ez dugu akordiorik egin. Horregatik itxialdiarekin aurrera jarraituko dugu datorren astean. Gose greba aurrera eramatea ere ari gara pentsatzen, dagoeneneko bi hilabete pasatu dira-eta greba hasi genuenetik".

# Goiena Telebista Oñatin ere ikus daiteke, 28. kanalean

*Sintonizatzeko, antena-teknikariari deitzea da onena*

ENEKO AZKARATE

**Oñatiko etxeetan ere ikus daiteke Goiena Telebista. UHFko 28. kanalean sintonizatzen da. Joan den astean Belarren izan ziren teknikoak, eta Murutik Belarreraino seinalea eroan eta handik Oñati osora zabaltzeko lanak egin zituzten.**

Etxebizitza bakarreko antena dutenek, seguruen, arazo barik hartu ahal izango dute GOITBko seinalea. Antena kolektiboa dutenek, ostera, zailtasun handiagoak izango dituzte seinalea hartzeko. Horregatik, onena da ohiko antena-teknikariarekin harremanetan jartzea, hark egin ditzan antenan egin beharreko egokitzapenak.

GOITBko seinalea ibarreko herri guztietara zabaltzea uste baino zailagoa izan da, arazo tekniko eta administratiboak tarteko. Edozelan ere, Antzuolan izan ezik, gainerako herri guztietan ikus daiteke Goiena Telebista oraingo astetik aurrera.

## DEBAGOIENEAN LABUR

### A-1 autobidea ustiatzeko hitzarmena sinatu dute Arabako eta Gipuzkoako foru aldundiek

Gipuzkoako eta Arabako foru aldundiek lankidetza hitzarmena sinatu dute Eibar-Gasteiz autobidea eraiki, zaindu eta ustiatzeko. Besteak beste, oraindik eraikitzen hasi ez diren autobidearen zatiaren gaineko epeak eta bidesariaren prezioa zehaztuko dituzte bi erakundeek. Esate baterako, Arlabango tunela, bi lurraldeak zeharkatuko dituena, Gipuzkoako Diputazioaren ardurapean eraikiko da, baina Arabakoak dagokion zatia ordainduko du. Bestalde, autobidea erabiltzeko ordaindu beharrekoa berdina izango da bi lurraldeetan: kilometroko 0,08 euro; hau da, ia 14 pezeta. /E.A.

### MCC taldeak 2.250 lanpostu sortu eta salmentak %12,8 handitu zituen iaz

Mundu mailako krisiari aurre egin eta uste baino hobeto joan zaio urtea MCC taldeari. Hain justu, 2.250 lanpostu sortu zituen joan den urtean; eta salmentak, %12,8 handitu zituen. Kopuruei dagokienez, 9.146 euroko salmentak izan zituen iaz. Langileei dagokienez, bestalde, gaur egun 65.296 lagunek dihardute lanean MCC taldeko enpresetan. Batez ere, banaketa eta industria negozioetan joan zitzaizkion ondo gauzak MCCri. Ez, horrenbeste, finantza negozioari dagokionez. Burtsaren bilakaera negatiboa dela-eta, Euskadiko Kutxaren irabaziak %7 txikitu ziren 2001. urtekoekiko. /E.A.

# Justizia euskalduntzeko kanpaina abiaraziko dute euskara elkarteek

*Eskuorri bat banatuko dute etxez etxe eta kartelak jarriko dituzte kalean*

ENEKO AZKARATE

Justizia euskalduntzeko kanpaina jarriko dute abian datorren astean Debagoieneko euskara elkarteek. Kanpainaren bultzatzaileek gaiaren gainean hausnartzera gonbidatu nahi dituzte herritarrak, eta, horretarako, eskuorri bat banatuko dute ibarreko etxeetan. Horrez gainera, kartelak jarriko dituzte taberna, denda, elkarte, eta abarretan. "Euskaldunok epaitegietara jotzen dugunean euskara erabiltzea da justizia euskalduntzeko ardatz nagusia", esan digu Bergarako Jarduneko Gurutze Ariznabarretak.

Egungo egoera hauxe da gure ibarrean: Debagoieneko %63 euskaldunak diren arren, Bergarako epaitegiko epaileen %100 erdaldunak dira. Bestalde, euskaldunok epaitegira goazenean, joera daukagu ama hizkuntza erabili ordez erdara erabiltzeko. Hori aldatzea du helburu kanpainak.

Egunkaria aurrera
Orain inoiz baino gehiago!
Egin zaitez harpidedun
deitu 943 30 35 55 / 943 30 35 54
635733389 / 635733388
telefonoetara
edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide hauetara:
www.egunero.info/harpidetza
Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN
Dirulaguntzak: 3035 0092 56 0920055559
Egunero




### Esperientzia komunitarioa elkartrukatzen

Mundukide fundazioak urtero antolatzen duen esperientzia komunitarioen truke programaren barruan, Amerikako eta Afrikako 14 lider komunitario etorri dira gure ibarrera. Debagoienean emango dituzte egun batzuk; hemengo kooperatiben, elkarteen eta taldeen esperientzia ezagutu eta haien herrietako esperientzia komunitarioaren berri emango dute. Astelehenean, Paul Nicholson nekazari sindikalistarekin elkartu ziren HUHEZIn. Martitzenean, ostera, prentsaurrekoa egin zuten Mundukide fundazioko kideekin batera, argazkian ikusten denez. /E.A.

## 'EGUNKARIA' ITXITA

### LABUR

#### Ordubeteko lanuzterako dei egin dute martxoaren 13rako; gaurko, mobilizazioak

*Egunkaria*-ri elkartasuna adierazi eta itxiera salatzeko ordubeteko lanuztea deitu dute datorren eguenerako. Sindikatu nagusiek egin dute dei hori, Kontseiluaren eta *Egunkaria*-ko langileen ekimenez. Lanuztea 11:30etik 12:30era izango da eta ordubete horretan lantegietan batzarrak egitea proposatu dute sindikatuek. Horrez gainera, sindikatuek egunkari berrirako harpidetzak zabalduko dituzte. Bestalde, gaurko elkarretaratzeak deitu ditu EHE erakundeak. Arrasaten giza katea egingo dute Herriko Plazan, 19:30ean.

#### Hasi dira osatzen ibarreko herrietan 'Egunkaria'-ri laguntzeko batzordeak

Ibarreko herri gehienetan sortu dira dagoeneko *Egunkaria*-ren aldeko herri batzordeak. Helburu argiak dituzte: harpidedunak egin eta herrietako ekimenak antolatu. Eskoriatzan astelehenero batzen da plataforma; Oñatin, Aretxabaletan, Bergaran eta Elgetan ere lanean dihardute; Aretxabaletan 24 harpidedun egin zituzten Aratusteetan, eta eguaztenean eman zuten horren berri. Antzuolan datorren martitzenean sortuko dute batzordea. Aramaioko eta Arrasateko udaletan, berriz, *Egunkaria*-ren aldeko mozioak aurkeztu dituzte.

#### Otamendik torturak salatu izanak sortu duen uholdea baliatu nahi dute TATekoek

Torturaren aurka Euskal Herrian sortu den *uholdea* baliatuz, torturaren aurkako konpromisoa aktibatu gura du Torturaren Aurkako Taldeak. Eguaztenean prentsaurrekoa eman zuten TATeko kideek, eta haiekin izan zen Martxelo Otamendi *Egunkaria*-ko zuzendaria. Otamendik "tortura desagertzeko giza olatu handi bat sortzeko beharra dagoela" esan zuen. TATek, berriz, jarduera hori "sistematikoa" dela esan zuen. Eta gaitzetsi zuen orain arteko salaketei jende askok kasurik egin ez diela.

#### Udalbiltzak ere dirulaguntzak bideratu eta 'Egunero'-ren harpidetza bultzatuko du

EAJk eta EAk kudeatzen duten Udalbiltzaren Zuzendaritza batzordeak esan du *Egunkaria*-ren ordez sortuko den kazeta berria diruz lagunduko duela. Oraindik ez du proposamen zehatzik egin, baina asmoa da udalerriei eskatzea populazioaren araberako diru ekarpena egitea egunkari berrirako. Bestalde, ezker abertzalearen Udalbiltzaren Batzorde Eragileak udaletan aztertzeko Kontseiluak egindako testuarekin batera idatzi bat igorriko du *Egunkaria*-ren alde, eta udaletan *Egunero*-ren harpidetzak bultzatuko ditu.

#### Pello Zubiriaren egoera larria dela esan du Marta Barandiaranek, familiako sendagileak

Eguaztenean, Pello Zubiriaren osasun egoeraren gaineko prentsaurrekoa eman zuten Pello Zubiriaren emazte Malores Etxeberriak eta haren mediku Marta Barandiaranek. Azken horrek esan zuenez, "Pello kartzelaratzen badute, inkomunikazio denboran galdutakoa ez du berreskuratuko. Pello hauskorra da fisikoki eta ezin dute kartzelaratu. Libre egon behar du, gutxienez oreka egonkorrari eutsi eta bizimodu arrunta egin ahal izateko".



XABI URZELAI
Gorka Etxabe kazetariak gidatu zuen eguaztenean GOITBn *Egunkaria*-ren gaineko mahai-ingurua. Haren eskuinaldean, gonbidatuak.

# Eguneroko euskal prentsari laguntzeko konpromisoa eskatu dute eragileek

*Herritarren eta erakundeen laguntzaren beharraz mintzatu dira GOITBn*

ENEKO AZKARATE

***Euskaldunon Egunkaria*-ren itxiera; atxilotuak eta haietako batzuek salatu dituzten torturak; egoera berriari zelan erantzun; *Egunero* eta etorkizuneko egunkaria; euskalgintzari egindako erasoak; adierazpen askatasuna... Horiek eta beste gai batzuk izan zituzten hizpide, eguaztenean, GOITBn egindako mahai-inguruan.**

Juan Mari Larrarte *Egunkaria*-ko langileak, Fermin Lazkano Plazagunea enpresako kudeatzaileak eta Lorea Leanizbarrutia Gipuzkoako Diputazioko Euskara zuzendariak hartu zuten parte mahai-inguruan. *Egunkaria*-ren itxieraren aurrean, herriak eta erakundeek emandako erantzunaren gainean, herrietan sortzen ari diren batzordeen lanaren garrantzia azpimarratu zuen Larrartek, egunkari berrirako harpidedunak lortze aldera, batez ere.

Leanizbarrutiak, ostera, erakundeek euskal kultura eta herri ekimenak bultzatu eta sustatzeko borondatea eta konpromisoa dutela esan zuen eta herritarrak eguneroko prentsari laguntzeko kontzientziatu beharra azpimarratu zuen. Horren haritik, gaur egun *Egunero*-ren salmenta kopuruak momentuko egoerari erantzuten diola esan zuen Larrartek.

> *Euskal esparru komunikatiboa eta herri ekimenak bultzatu beharraz ere jardun dute*

Lazkanok, euskalgintzaren aurkako erasoon aurrean, euskal gizarteak eta erakundeek dinamika, lege eta arau propioak bultzatu beharko lituzketela esan zuen, baina euskal produktuen merkatuak gaur egun dituen mugen gainean hausnarketa egin zuen.

**TORTURA: LEHENENGO ALDIA EZ**

Tortura kontuak ere izan zituzten mintzagai. Honakoa lehenengo aldia ez dela izan esan zuen Lazkanok; Leanizbarrutiak herri honetan beste hainbat ere askatasun barik bizi dela esan zuen.

Euskal esparru komunikatiboa bultzatu beharraz ere jardun zuten. Lazkanok gogora ekarri zuen Jaurlaritzak baduela irrati lizentziak emateko ahalmena, eta herri irratiek legearen bermepean emititzeko duten eskubidea aldarrikatu zuen.

KOLOREAREN BILA
Koloretako ploteoak, mugarik gabeko neurrietan eta plastifikatuta, luma-kartoian jarrita edo display-rik egokienetan.
Atai
Telf.: 943 79 81 66
E-mail : atai@vianwe.com
ARETXABALETA

febal
Armeko
SUKALDE ITALIARRAK
09:00etatik 12:30era eta 16:00etatik 20:00etara.
Zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara.
Sukalde eta horma-armairu italiarren azken belaunaldia
• Diseinu italiarra zure esku
• Debagoieneko banatzaile ofiziala
• Bost urteko bermea
• Proiektu pertsonalizatuak
• Bi solairuko erakusketa
• Merkatuko prezio onenak
ARMEKO
Sukalde italiarrak
Kataide industrialdea 6. pabilioia • Tel.: 943 71 25 08 • ARRASATE

# Zabalik



ELENA LAKA

## Xingola

**E*uskaldunon Egunkaria* irakurtzea ohiko keinu arrunt bat baino ez zen egun haietan, sekula ez zitzaigun burutik pasa ere zelako umezurtz geratuko ginen egunen batean hura faltaz gero.**

**Zeren, *Egunkaria*-ren itxiera euskaldunoi egiten zaigun eraso bidegabea da, adierazpen eta informazio eskubideei ukazio galanta, gizarte normalkuntzari ipintzen zaion oztopo izugarria.**

**Baina, aldi berean, lapurreta hutsa da euskaldun bizi nahi dugunoi egunerokotasunean egin digutena. Zerbait kuttuna, maitea, etxekoa ostu digute. Etxetik mundura irteteko leihoa kendu digute, bizitza gure hizkuntzan ulertzeko gaitasuna ukatu digute.**

**Eta gertuko pertsona baten derrepenteko heriotzak harekin egindakoak berezi bihurtzen dituen moduan, aparteko bilakatu zaizkit niri aurretik normaltzat (eta sarritan plazertzat) nituen irakurketak: Zakilixuten hitz jokoak, kulturako orriak, zine kritikak, literatur gehigarria, domeketako sukaldaritza-orria, Emun kooperatibaren aholkularitza arrosa koloreko orrietan, eta hainbeste idatzi eta artikulu: Pako Aristi, Mikel Elortza, Juan Gartzia, Maialen Lujanbio, Mikel Aramendi, Andolin Eguzkitza... Kafea eta egunkaria, horrexek nituen bizio. Orain hankamotz geratu naiz.**

**Eta diharduen erreprresioarekin fribolitatea ematen badu ere, erasotzaileei ez diet barkatuko aste osoko momentu samurrenetariko bat ebatsi izana: zapatu goizetan semearekin egunkaria erosi, umeendako gehigarria, *Xingola*, atera, kontatu eta, arkatza eskuan, jokoak egiten genuenekoa.**

***Egunkaria* aurrera!**

# Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu behar-ko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAK bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 71
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com

## Euskal kultura mututu

Ipintza Institutuko irakasleok, *Euskaldunon Egunkaria*-ko eta hango Zuzendaritzaren atxiloketaren aurrean, gure kezka eta desadostasuna adierazi nahi dugu: Europan hitz aniztasuna den heinean, gure inguru txiki honetan euskaraz genuen egunkari bakarra itxi egin digute; nahiz eta ageriko frogarik ez aurkeztu, euskal kultura mututu.

Eraso honen aurrean, gure elkartasuna adierazten diegu *Euskaldunon Egunkaria*-ko langileei.

IPINTZA INSTITUTUKO IRAKASLEAK
Bergara

## 'Egunkaria', aurrera!

MUko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Batzar Nagusiak, 2003ko otsailaren 26an, zera adierazi nahi du:

1. Lehenik eta behin, elkartasunik eta besarkadarik handiena helarazi nahi diegu Egunkaria-ko partaide guztiei, eta bereziki atxilotuta egon diren eta horrela jarraitzen duten lagunei.

2. Salatu nahi dugu ez bakarrik komunikabide bat isiltzeko egiten ari diren ahalegina, baita hizkuntza eta kultura bat isilarazteko eta ezereztatzeko egiten ari diren saiakera zitala ere.

3. Salatu nahi dugu, halaber, demokraziaz jantzitako sistemak nahi duena egiteko erakusten duen inpunitatea: erakundeak legez kanpo uzteko bideak ireki, komunikabideak itxi, pertsonak torturatu... Dirudienez, denak balio du.

4. Exijitu nahi dugu zentzugabekeria hau bukatzeko eta uzteko bakean euskaldunoi gure bidea egiten.

5. Era berean, uste dugu horretarako ezinbestekoa dela pertsona guztion oinarrizko eskubide eta ideia guztiak errespetatzea.

6. Lanean jarraituko dugu euskalgintzan eta herrigintzan, Euskal Herrigintzan.

MU-KO HUHEZI-KO BATZAR NAGUSIA
Eskoriatza

## DYAko langileei, eskerrik asko

Dialisia egitera egunero Zumarragako ospitalera joaten garen Bergara eta Antzuolako giltzurrun gaixook gure eskerrik zintzoena adierazi nahi diegu DYAko langileei, urtarrilaren 31n, elurteak izan ziren egunean, arratsaldez, ohiko moduan ospitalera eroan gintuztelako.

Eskerrik asko, beraz, astialdia beste batzuei laguntzeko eskaintzen dutenei, batez ere, erakusten duten adeitasunagatik.

MARIASUN ZUBIMENDI
Bergara

## 'Egunkaria', egunero

*Egunkaria*-ko adiskideok, *Euskaldunon Egunkaria*-ko harpideduna eta bazkidea naiz. Joan den asteko *Egunero* baten irakurri nuen Pako Aristiren zutabea. Poz ikaragarria hartu nuen. Nik ere aspaldiko urteetan pentsatu izan dut berak azaltzen duen San Emeterioren mirariak esaten duena. Arrasateko lagun abertzale honek espero du Donostiako manifestazioko milaka lagunak iratzartuko dituela. Beste aldetik, zorionak, Martxelori eta gainontzeko lagunoi, eta kartzelaratu dituztenak lehenbailehen askatu ditzatela.

1965ean, Donostiako Komandantzian, Guardia Zibilak torturatu egin ninduen. Guardia zibilek euren artean ezizenak erabiltzen zituzten, baina noizbehinka oharkabean euren izenak erabiltzen zituzten. Nik, horretaz baliatuz, guardia zibilak salatu nituen. Hiru hilabetera askatasun probisionala eman zidaten eta horren ostean, Auzitegi Medikoak ikusi egin ninduen. Ordurako ez neukan inolako arrastorik; eta salaketa hor gelditu zen. Geroago, Auzitegi Militarrean, Loiolako Kuartelean, adiskidetze-ekitaldirako deitu zidaten. Alde bakoitzak bere azalpenak eman zituen, eta hor gelditu zen kontu guztia.

Madrilgo Auzitegi Publikoak epaitu gintuen. Neu bi urteko kartzela zigorrera eta 15.000 pezeta ordaintzera kondenatu ninduten. Azkeneneko zazpi hilabeteak Palentziako kartzelan egin nituen. ELAko kidea nintzen.

Ea Donostiako manifestazioaren milaka olatuekin *Egunkaria* aurrera ateratzen dugun.

Besarkadak eta agur.

JOSU OTADUI
Arrasate

## Noiz arte horrenbeste sufrimendu?

Joan zen astean albiste txar batekin oheratu ginen, eta gaur ezintasuna, amorrua sentiarazi digun beste batekin altxatu. Izan ere, Bautista Barandallari 92. artikulua ez zaiola aplikatuko erabaki zuen Iruñeko epaileak. Bere argudioek ez dute osasun egoerarekin zerikusirik, beste zerbaitetan oinarritu da. Gaixotasun sendaezinak dituzten preso denei aplikatu beharko litzaieke hau, baina gure senide presoek ez dutela inongo eskubiderik argi eta garbi geratu da, guztia momentuko koiuntura politikoaren araberakoa delako.

Bautistaren gaixotasuna sendaezina da, eta hau izan beharko litzateke jarraitu beharreko irizpide bakarra 92. artikulua aplikatua izan dadin. Baina horrela izan ordez, epaileak PP-PSOE alderdiek nahiko luketen erabakia hartu du, hau da, euskal preso politikoei baldintzapeko askatasuna ukatzeaz gain, osasun egoera okerrenetan ere hauek espetxean jarraitzea.

Hau guztia gutxi balitz, joan zen egubakoitz goizean Juan Carlos Balerdi preso lasartearraren sendiak auto istripua izan zuen.

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



## Kolaborazioak

Ondorioz, ama eta anaia hil egin dira eta aita oso larri geratu da. Balerdi Almeriako espetxean dago, nahiz eta horrenbeste aldiz euskal gizartearen gehiengoak dispertsioarekin amaitzea eskatu duen. Instituzioei, alderdi politikoei ez zaie axola astero-astero egin beharreko kilometro guztiak gure senide presoak ikusteko, ezta ere bertan bizia galtzen badugu, gu ez garelako herri honek bizi duen gatazkaren afektatuak, ez! Gatazka honentzat soluzioak aurkitzea exijitzen dugu, ez dugulako beste 40 urtez eskubiderik gabeko pertsona gisa tratatuak izan nahi. Ikaragarrizko gastu ekonomikoa izateaz gain, dispertsioak sufrimendua baino ez duela eragiten gogorarazi nahi dugu. Horrela nahi dute euskal gatazkarekin amaitu? Inoiz baino gehiago, Euskal presoak Euskal Herrira! lelo famatua, horretan, lelo bakar batetan, ez gelditzea eskatu nahi dizuegu. Inoiz baino gehiago borrokatu dezagun guztion artean hau lortzeko.

Eta ezin ahaztu dispertsioa onartua izan zenean alderdi politiko batzuek izan zuten erantzukizuna, ezin da ahaztu PNVk heriotza hauen gainean daukan errua, oniritzia eman ziolako mendeku politikoa baino ez den proiektu honi. Nahikoa da. Ez hipokrisia eta faltsukeria gehiago. Gaur egun herri honek dituen 650 preso politikoetatik Euskal Herrian soilik 44 aurkitzen dira. Ez al da hau guztiz desorekaturik dagoen kopurua?

Gure senideak Euskal Herriratzea exijitzen dugu beste behin ere, eta hau horrela izan arte ez ditugula bertan behera utziko argi eta garbi esango dugu behar den beste alditan.

Besterik gabe, besarkada beroena Bautista Barandallari, Juan Carlos Balerdiri, eta bien senideei, zuekin gaude eta jaso ezazue Arrasateko txoko honetatik elkartasunez beteriko besarka beroak.

ARRASATEKO ETXERAT
Arrasate

### Beste eraso bat

Euskaraz idatzitako egunkari bakarra ixtea, besteak beste, kulturgintza eta euskalgintzaren aurkako erasoa denez, gure gaitzespena adierazi nahi dugu. Era berean, atxilotuek jasandako torturak salatzen ditugu. Besarkada bero bana ekintza honek zuzen-zuzenean harrapatu zaituzten guztioi.

JOXE OTADUY ETA DONOSTIAKO IBAI IKASTOLAKO BESTE 28 IRAKASLE
Donostia

### Oinarrizko Errenta emakumeen egoera hobetzeko

ESKn denbora luzea daramagu Oinarrizko Errentaren gainean lanean, bazterkeria sozialari eta pobreziari irtenbide egokiren bat aurkitu nahian.

Oinarrizko Errentaren sarea:

Bizimoduaren beharrei aurre egiteko beste den diru-sarrera txikia da, gizarteko norbanako guztiei ordaindu beharrekoa, guztion eskubide moduan eta ez norberaren herritartasunaren edo bizilekuaren arabera. Zergen edo bestelako baliabideen bitartez finantzatutakoa behar du izan. Oinarrizko Errenta ziurtatuta egon beharko luke eta guztiei eman beharko lekieke, lanean jardun edo ez, bestelako diru-sarrerak izan edo ez, eta zeinekin bizi den kontuan hartu barik.

Oinarrizko Errentaren helburu nagusia pobrezia errotik ateratzea da eta bizimoduaren oinarrizko beharrak asetzea.

Lan bila dabiltzan hiru lagunetik bi emakumezkoak dira; hau da, langabeziak eragin handiagoa du emakumeengan gizonezkoengan baino, bikoiztu egiten du eragina.

Lanean dabiltzan emakumeak lau taldetan daude sailkatuta: etxe-zerbitzua edo pertsonak zaintzea; administrazioa, saltzaileak; eta erdibideko lanbideak, batez ere, erizainak eta andereñoak. Lanbide horiek gizonezkoak nagusi diren bestelako lanbideen mendean daude. Emakumeen soldata gizonezkoena baino %30 baxuagoa da, gutxi gorabehera.

Etxe-zerbitzuan lan egiten duten emakumeen aipamen berezia egin beharra dago; izan ere, euren lan egoera gizarte asegurantzaren erregimen berezi baten menpe dago: ez ditu lan istripuak onartzen, langabezia-prestaziorik ez dute…eta ez dute inolako babesik lanetik kaleratzen badituzte edo ugazaben exijentzien aurrean.

Oinarrizko Errenta generoaren desberdintasunak kontuan hartu barik ezarri beharreko tresna izanda, emakumeen bizimodua dezente hobetuko luke:

Batetik, norbanako guztien eskubidea izanda, ondorio positiboak ditu; izan ere, zelanbaiteko boterea sortzen du norberarengan, lanaren kudeaketan, pribatutasunean eta lana bilatzen hasteko orduan.

Oinarrizko Errentak emakume askoren egoera hobetuko luke, batez ere, gizarte-maila apalenetan dauden emakumeena, zeinak gaur egun ez duten autonomia ekonomiko apurra edukitzeko diru-sarrerak lortzeko aukera izango luketen.

Etxe-zerbitzua eta pertsonak zaintzea oraindik ikusten ez diren lanak dira, gutxietsitakoak eta batez ere, emakumeek egiten dituztenak. Oinarrizko Errentak ematen duen gutxieneko independentziari esker, emakume askoren etxebizitzetan negoziaziorako indarra handituko litzateke, batez ere, gizonezkoaren menpe dauden emakumeengan edo diru-sarrera oso txikiak jasotzen dituzten emakumeengan. Emakumeak gaur egungo maila pertsonalaren eta sozialaren gainetik leudeke, etxe barruko lanak banatzeko orduan.

Oinarrizko Errentak lan arloan duen eraginaren gainean, berriz, esan beharra dago lan baldintzarik eskasenak negoziatzeko boterea indartuko lukeela.

Ez dugu uste Oinarrizko Errentak etxeko lanen bidezko banaketa ekarriko duenik, ezta lan-jardun bikoitza amaitzea ere. Oinarrizko Errentari ezin zaio eskatu konpondu ezin ditzakeen gizarteko arazoak konpondu ditzan (genero desberdintasuna edo lanean gertatzen den zatiketa sexuala),

Berdintasunaren aldeko proklamek ezeztatzen duten mota guztietako diskriminazioa errotik kendu beharra dago. Derrigorrezkoa da zalantzan ipintzen segitzea etxean, lanean eta erakundeetan bizirik dirauten balio, modu eta jarrera matxistak. Beharrezkoa da lanean gain, eguneroko bizimoduan berdintasuna erraztuko duten zeharkako politika publikoak artikulatzea.

MALEN ERRASTI
ESK

### Oinak: bitxiak dira emakumeen oinak…

Neurri eta kolore askotako oinak daude. Tirano batek beharturik, larregi ez hazteko edota "femeninoagoak" izateko, bendatutako oin txikiak. Basoan zehar herria osatzeko beharrezko belarrak bilatzen eta ibiliaren ibiliaz zauriz beteriko oinak. Ipuinak entzuten dauden bitartean umeak inguratzen dituzte oinak. Inkisizio Santuaren suan erretako oin subertsiboak. Iraultza Frantsesean emakumezkoentzat hezkuntza eta ogibide eskubidea aldarrikatzeagatik gillotinatutako oinak.

Beloa lurreraino heldu behar delako badaude ikusi ezin diren beste oin batzuk. Beste batzuk esposaturik apenas ibil daitezke, emakumezkoen salerosketaren biktimak alegia, proxenetek emakumeak Amerikatik Japonera saltzen dituzte, alderantziz ere; Europak Tailandia eta Filipinetako emakumeak inportatzen ditu eta europarrak harenetan bukatzen dute.

Ezinezko takoien ondorioz mindutako oinak ere daude, gaurko esklabutzaren adierazgarri. Modu berean badaude zortzi orduz lanean tinko mantentzen diren oinak. Zortzi lanordu horiei beste zortzi gehitu behar: etxeko lanorduak. Zortzi gehi zortzi, berdin hamasei. Eta gainera haurrak negar eginez gero, magia balitz moduan altxatuko dira oin horiek eta lokanta batekin haurra lasaituko dute.

Batzutan oinak ez dira ubelduretaz libratuko, gorputz osoa bezala kolpatuta bukatuko dute; janari gatza botatzeaz ahaztu edo agian larregi botatzeagatik. Badaude ere negar egiten duten oinak bortxatzaile baten hatzaparretatik ihes egin ondoren. "Zer pintatzen zuten oin horiek ordu horietan?"

Lanbide bila hamaika ate itxita aurkitu ondoren kaleetan barrena nekatutako oinak. Anorexiak jota gorputzaren pisuari eutsi ezin dioten oinak, patriarkatu sofistikatuenaren gaixotasun madarikatua. Krisien, autoestimu faltaren eta dependentzien erruz psikologikoen dibanetan dar-dar egiten duten milaka oin.

Berdintasunezko mundu baten bizi dela pentsatzen duen hori zilborrari begiratzeari laga eta has dadila begiratzen emakumeen oin duinak: bidea eginez datozen oinak. Gezurra badirudi ere indarra eta poza mantentzen duten oinak badira, eta bai dantza egiten zein lan egiten jarraituko dute askatasun indibidualaren eta kolektiboaren alde.

ITSASO OTSOA
(ARRASATEKO EMAKUMEEN KONTSEILUKO KIDEA)
Arrasate

**DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA** Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

## *Hogei urte barru Debagoiena zelakoa izatea nahiko zenuke?*

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal
TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## *Jon Sarasua*

IRAKASLEA

# “Euskararen garapena ez dugu etorkizun ikuspegi beregain baten oinarritu, eta horrek oso fruitu kaskarrak eman dizkigu”



Jon Sarasuak (Aretxabaleta, 1966) MUko Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean dihardu gaur egun. Hango Lanki ikerketa taldean ere badihardu. Kazetaria eta bertsolaria ere bada. Plazarik plaza zebilenean, sarritan agertzen zen hedabideetan. Orain, ez hainbeste. Edozelan ere, berriz ere plazara itzultzeko asmoa duela aitortu digu, “noiz eta zelan” erabakitzeke duen arren.

ENEKO AZKARATE

**Bertsolaria, kazetaria, irakaslea… Zure lanbideaz galdetzen badizugu, zer zarela erantzungo diguzu?**

Ez dakit. Hainbat lan jarduni eusteko irekita izan dut burua beti. Igual, Errenazimenduko gizonen espiritu harekin bat egiten dudala esango nuke. Gauza askok betetzen edo asetzen naute, eta horregatik ez diot ezeri uko egiten. Egia da azkenaldian alde artistikoena edo sormena eskatzen duena ahaztuta edo albo batera utzita daukadala eta HUHEZIko kontuetan buru-belarri nabilela.

**Alde artistikoa utzita daukazula esan duzu. Zergatik daukazu utzita?**

Sormen punturik gorenean utzi nuen bertsolaritza. Taula gainean geroago eta errazago biluzten nintzen momentuan. Esan gura dut hari uko egitea ez zela izan sormen krisi baten ondorio, beste arrazoi batzuengatik baino. Izan ere, 19 urte neramatzan taula gainean eta baneukan hortik kanpora zelan sentitzen nintzen ikusteko gogoa. Bestetik, sorkuntzatik bizi izatea gauza handia da eta aukera hori egiten dutenei errespetu handia diet. Askatasuna ematen du, baina, aldi berean, lotu ere egiten zaitu; arrakastatik edo txaloetatik bizi izateak sortzen duen lotura. Eta ni ez nintzen nekatu, baina aro bati amaiera ematea erabaki nuen. Gainera, tartean, nire gaixotasunagatik kantatu ezinik ibili nintzen urtebetez…

**Kazetari ikasketak egin zenituen, kazetari lanetan ibilia zara, baita iritzi-emaile ere. Orain dagoeneko ez duzu gustuko kazetaritza?**

*Argia*-n, Euskadi Irratian, telebistan zerbait, baina oso gutxi… ibili nintzen. Gero, batez ere, iritzi-emaile jardun nuen. Sentsazio batekin amaitu nuen kazetaritza, hain justu, karrera gustuko nuela, batez ere, ikuspegi panoramiko bat eman zidalako hainbat gauzarena; izan ere, nik, unibertsitatean, gehiago ikasi nuen mugidetan edo ibili ginen antolakuntzetan-eta klaseetan baino. Bestetik, ikasketak amaitu nituenean iruditu zitzaidan ez nuela kazetari izan gura. Buruak beste zerbait eskatzen zidan.

**Zergatik?**

Behin idatzi nuen artikulu bat, *Ukazetari* izenburukoa, eta han azaltzen nuen zergatik egin gura nion uko kazetaritzari: bueno, batetik, ikustea, oro har, zer funtzio betetzen duen kazetaritza handiak gizarte honetan; eta gero, era berean, kazetariaren lana beti dela errealitatearen sinplifikatzaile edo kapsula txikietan saltzaile, hau da, irakurketa konplexu eta sakonak gizarteratzeko generoa ez dela kazetaritza.

**Zer iritzi daukazu gaur egun egiten den kazetaritzaren gainean?**

Oro har, uste dut hedabideek gizarte mota honi eta botereari interesatzen zaion funtzioa betetzen dutela. Egia da nire inguruneko hedabideek, tokian tokikoek edo orain gori-gorian daukagun *Egunkaria*-k, esaterako, beste funtzio gertuagokoa eta kritikoagoa bete dezaketela eta betetzen dutela. Nik bihotzez eskertzen dut *Egunkaria*-k edo gure ibarreko hedabideek egiten duten lana.

**Zer balorazio egiten duzu *Egunkaria*-ren itxieraren gainean?**

Batetik, oso gertutik ukitzen nau gai horrek. Hango hainbat langile eta pertsonarekin harremanak izan ditudalako; aitortu behar dut, hala ere, ez beti harreman errazak. Baina lagun asko ditut han lanean. Bestetik, *Egunkaria*, nire iritziz, beti izan da gauza handia. Hala ere, uste dut irakurketa sinplista egitea dela *Egunkaria*-ren itxiera euskal kulturaren aurkako erasoa izan dela esatea. Uste dut askoz ere sakonago hausnartu behar dugula zer egiten gabiltzan, zer estrategia dauden abian eta estrategia horiekin zelan zipriztintzen ari garen euskalgintza. Ez bakarrik estrategia politiko-militarrarekin, baita botere autonomikoarenarekin ere. Nik uste dut biak ere gainditu beharra dagoela eta badagoela euskalgintzaren muinean hazirik, herri honen garapenerako estrategia beregain bat pentsatzeko. Eta pena ematen dit ikusteak hazi hori ez gabiltzala garatzen eta, oro har, ez gabiltzala gauzak ondo egiten.

**Nor bere aldetik dabilela diozu?**

Benetan uste dut *Egunkaria* itxi eta batbatean eman zaion erantzun bateratua oso polita izan dela. Baina kaltetuen batasunak eta erreakzioak ez garamatza inora… Ez, ez da bakarrik abian dauden estrategia bi horien arteko batasuna izan litekeena. Ez da hori. Sakonagoa da. Etorkizuneko ikuspuntu berritu batetik bakarrik sortuko dugu beste estrategia bat. Herri honetan badaude horretarako elementuak, baina ikusten dut oraingoz ez dela mamitzen. Kexa hutsekin ez goaz inora. Gauzak berriro pentsatzeko garaia da.

***Egunkaria*-ren itxiera albiste tamalgarria izanda ere, aukera izan daiteke gauzak berriro aztertzeko eta beste modu batera egiteko?**

GIZARTE ZIBILA

**“Herri honetan zerbait baldin badago da gizartearen energia. Eta benetan uste dut gizarte zibilaren energian oinarritutako etorkizuneko ikuspegian ez dela inoiz sinistu”**

KAZETARITZA

**“Kazetariaren lana beti dela errealitatearen sinplifikatzaile edo kapsula txikietan saltzaile, hau da, irakurketa konplexu eta sakonak gizarteratzeko generoa ez dela kazetaritza”**

BERTSOLARITZA

**“Oholtza nire tokia badela uste dut, baina ez dakit noiz eta zelan itzuliko naizen. Hala ere, lehengo neke lanean, bertsolari puntako baten neke-lanean, ez naiz ibiliko”**

EUSKAL PENTSAMENDUA

**“Trantsizio ostetik honako literaturagileen eta euskalgintzako erreferenteen belaunaldiak ez du pentsamendu sendorik ekoiztu. Ahotsa ematen zaienek askotan ez dute argi handirik ematen”**



ENEKO AZKARATE

Herri honetan zerbait baldin badago da gizartearen energia. Eta benetan uste dut gizarte zibilaren energian oinarritutako etorkizuneko ikuspegian ez dutela inoiz sinetsi, ez botere autonomikoak –nahiz eta orain hasi den apur bat diskurtsoa aldatzen, baina diskurtsoa da gauza bat eta praktika beste bat–, ezta estrategia politiko-militarrak ere. Ez dute inoiz sinetsi gizarte ekimenaren zentraltasunean. Sinistu dute haren ekimenean, bultzatu dute batzuetan, erabili dute beste batzuetan, baina ez dute sinetsi bere zentraltasunean. Nire iritziz, hortaz, gizarte zibil horrek aterako ditu gaztainak sutatik, baita euskal hedabideen kasuan ere.

**Atxagak idatzi berri du ez ote garen garai baten amaieran eta guretik kanpo inork ez gaituela maite… Zer deritzozu?**

Egia esanda, ez da kontua geure buruari errua egoztea. Ikusita estatu inperialista baten bizi garela eta gauza batzuetan irits daitekeela irits daitekeen lekuraino. Hori bai, beste kontu bat da, etengabe kexatzen ibiltzea etsaiaz ahaztu barik. Ez, ez, ez. Zuk borrokatzea aukeratu baduzu, onar ezazu zure parekoak edo etsaiak ahal duen gogorren joko zaituela. Kontua da zer egin. Eta hori aztertzerakoan uste dut gauzak ez ditugula ondo egin. Alde horretatik ematen diot Atxagari arrazoi puntua. Horren muina da euskararen garapena ez dugula etorkizun ikuspegi beregain baten oinarritu eta oso fruitu kaskarrak eman dizkigutela abian dauden estrategi biak, zeren botere autonomikoaren eta politiko-militarraren sare horretan eraiki dugu-eta euskalgintza. Eta hortik ez goaz inora ere.

**Kontseiluaren bultzatzaile izan zinen. Zelan ikusten duzu erakunde horren lan-jarduna?**

Euskalgintzaren etorkizuneko ikuspegi beregain bat mamitzeko eta hortik abiatutako estrategia batzuk abiatzeko sortu zen Kontseilua. Baina uste dut aukera horiek ez direla bete, hain zuzen ere, beharbada, lehen aipatu ditudan estrategia bi horien inertziak nagusitu direlako Kontseiluan. Nire tesiak gutxiengoan zeudenez, utzi egin nuen Kontseilua. Uste dut, zoritxarrez, Bertsozale Elkarteak zerabiltzan tesiei arrazoia eman diela denborak. Euskalgintza barrutik lotu barik edo kohesionatu barik dagoela uste dut. Hala ere, ez dut esan gura Kontseiluak dena txarto egin duenik eta beste aukerarik ez duenik.

**Bertsozale Elkartean ibili zara urtetan. Gustura?**

Bai. 15 urtean ibili naiz zuzendaritza organoetan, eta aurten utzi dut. Uste dut ikuspegi propioa duen gizarte erakunde ederra daukagula. Gustura nago egindako lanarekin. Uste dut noizbait egingo dugula Bertsozale Elkartearen gaineko doktorego tesi bat edo liburu bat, agertzeko zer bide jarraitu dugun 15 urteotan eta gaur egun non gauden.

**Inoiz ikusiko zaitugu berriro ere taula gainean bertsotan, modu jarraituan?**

Ez dut ezer erabaki. Oholtza nire lekua badela uste dut, baina ez dakit noiz eta zelan itzuliko naizen. Pentsatzen dut lehengo neke lanean, bertsolari puntako baten neke-lanean, ez naizela ibiliko, gorputzak, buruak eta beste ardurek ez didatelako hori eskatzen.

**Azken galdera bat: euskal intelektualik bada?**

Uste dut pentsamendua sortzen dela euskal munduan. Kuriosoa da ikustea, askotan, pentsamendu hori zenbat eta indartsuagoa izan, orduan eta oihartzun txikiagoa izaten duela. Esaterako, Sánchez Carrión-en ekarpenekin gertatzen ari dena harrigarria da. Bestetik, uste dut trantsizio ostetik honako literaturagileen eta euskalgintzako erreferenteen belaunaldiak, oro har, ez duela pentsamendu sendorik ekoiztu. Ahotsa ematen zaienek askotan ez dute argi handirik ematen. Belaunaldi horrek ez du mamitu etorkizun-ikuspegi bizigarri bat euskararen komunitaterako.



ENEKO AZKARATE

## “Ohiko 15.000 erosleek eutsiko diote ‘Egunkaria’-ri”

***Egunero*-k 55.000 ale saltzen ditu; *Egunkaria*-k, ostera, 15.000 inguru. Zer hausnarketa egiten duzu horren gainean?**

*Egunkaria*-ri eutsiko diotenak 15.000 horiek dira eta ez horrelako lauso garaietan hurreratzen diren estrategiek. Jarraituko dugu gutxi izaten, baina horrek ez nau askorik kezkatzen. Gehiago kezkatzen nau ditugun potentzialak ez ditugula ateratzen. Eta, adibidez, nik euskarazko ikus-entzunezkoen aldaketa sakonaren beharra ikusten dut. Askoz ere etekin handiagoa aterako genioke gastatzen den diru publikoari, baldin eta zabalduko bagenie nazio mailako euskal ikus-entzunezkoen esparrua herri mailako ekimen pribatuei. Une honetan egiten den apustua monolaborantzaren aldekoa da.

**Tokiko ikus-entzunezkoen gainean ari zara ala beste batzuen gainean?**

Bien gainean. Uste dut tokiko ikus-entzunezkoak funtsezkoak direla eta horiek ez direla behar adinako indarrez bultzatzen. Eta, bestetik, tokiko telebista eta irratiez gain, nazio mailako irrati eta telebista apalagoak ere behar ditugula. Emanez gero horiei beta, euskal komunikazio esparru askoz ere bizigarriagoa eduki dezakegu. Gaur da eguna Euskadi Irratia ez dudala entzuten. Eta aukera bakarra da.

BERGARA

## Soraluce lantegiak Jaurlaritzaren Zilarrezko Q saria jaso du

Eusko Jaurlaritzak enpresen kudeaketa kalitateari ematen dion Zilarrezko Q saria jaso berri du Osintxuko Soraluce S. Coop. lantegiak. 1962an ekin zion ibilbideari eta gaur egun Danobat taldearen barruan dago. Bestalde, Estatuko lehen enpresa da fresatzeko makinetan.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburu Josu Jon Imaz Soraluce enpresan egon zen eguaztenean, eta haren eskutik jaso zuten intsignia. Lantegia ikusi eta prentsaurrekoa egin zuen lantegiko arduradunekin batera. /M.B.

ANTZUOLA

## Herriko gazteek laster izango dute gaztetxea, plazan edo Kalebarrenean

Egueneko osoko bilkuran erabakitzekoak ziren zein lokaletan jarriko duten, azkenean, gaztetxea.

Bi aukera zituzten esku artean: batetik, joan den domekan bertan itxi zuten Surpe taberna; bestetik, oinetako denda egondako lokala, Kalebarrenean. Udaleko ordezkariek hainbat eztabaida izan dituzte, eta, esan bezala, egueneko osoko bilkuran ziren bietako bat aukeratzekoak.

Gazte Asanbladako kideek, bestalde, Kalebarrengo lokala nahiago dutela adierazi zieten Udaleko arduradunei. / A.I.

ARAMAIO

## Berriro ere, Maider Unda borrokalaria Espainiako txapeldun

Maider Unda borrokalari oletarrak Espainiako Txapelketa irabazi du bosgarren aldiz. Justu-justu ibili da, gainera; izan ere, Gabonetan lesionatu egin zen eta azkeneko momentura arte ez du jakin aurkezteko aukerarik izango ote zuen.

Horrez gain, joan den astean Turkian egon zen, nazioarte mailako torneo baten lehiatzeko. Han bigarren postua eskuratu zuen.

Aurrera begira, nazioarteko torneoa jokatuko du Madrilen, apirilean; eta maiatzean, Europako Txapelketa. /U.M.




AINTZANE IRIZAR

OÑATI

### Zubillagako saihesbideko lanak aurrera doaz, eta Gipuzkoako Diputazioko arduradunek espero dute datorren azarorako saihesbidea zabalduta egotea

Iazko azaroan hasi zituzten lanak, eta aurtengo azarorako saihesbidea zabaltzea espero dute Diputazioko arduradunek. Orain arte mendialdean ibili dira eskabadorak eta herritarrok ia ikusi ere ez ditugu egin lanok; orain, baina, bistan daude. Hondeaketa eta inausketa lanetan dihardute momentu honetan.

Saihesbideak 1,8 kilometro izango ditu eta 4,5 milioi euroko aurrekontua dauka. Santxolopetegiko industrialderako sarreran hasi eta Osinurdineraino luzatuko da; mutur bakoitzean biribil bana izango du. Saihesbide honekin, Zubillaga auzoko zirkulazioa arindu nahi dute. Izan ere, 9.500 bat ibilgailuk zeharkatzen dute auzoa egunero, Diputazioko azterketen arabera. / A.I.

ELGETA

# Gaztetxeak zazpi urte bete dituela-eta, ekintza ugari antolatu dituzte

Martxoaren 21ean zazpi urte beteko dira herriko gazteek gaztetxea okupatu zutenetik. Zazpigarren urteurrena dutela-eta, martxoko aste bukaera guztietan ekintzak izango dira gaztetxean. Ekitaldiak gaur bertan hasiko dituzte: bihar Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, berbaldia egingo dute Emakundeko teknikariek, 19:00etan. Aurten tratu txarren gaia izango dute hizpide. Horren ostean askaria egongo da berbaldian batzen diren guztiendako.

Biharko, berriz, kontzertua antolatu dute gaztetxean. Morau eta Agotas taldeen doinuak entzuteko aukera egongo da, 22:30ean. Eta gainerako aste bukaeretan ere egongo dira ekitaldiak. Datorren barikuan, hilaren 14an, arrazismoaren gaia jorratuko dute gaztetxean. Horretarako, kafe-tertulia antolatu dute. Bertan, Euskal Herrian bizi diren zenbait etorkinek hartuko dute parte. Zapatuan, hilaren 15ean, erakusketa egongo da gaztetxean ateratako erretratuekin. Eta Umeen Eguna ere antolatuko dute.

**HILAREN 22AN, URTEURRENA**

Herriko gazteek hilaren 22an ospatuko dute gaztetxearen zazpigarren urteurrena. Eguerdian, gaztetxe ondoko lautadan bazkaria egingo dute. Horren ondoren jokoak egongo dira eta gauean kontzertua. Aurten Ttak eta Cyprinidians taldeak etorriko dira gaztetxera. Bide batez, antolatutako ekintzetan parte hartzeko dei egin dute gaztetxeko arduradunek. /O.E.

**Zertzelada**

**Gaztetxearen urteurrena dela-eta, berbaldia, kontzertuak, kafe-tertulia, Umeen Eguna, erakusketa, eta abar izango dira martxoan.**

ARRASATE

# Zenbait sindikatuk bat egin dute Irakeko gerraren kontra

ELA, LAB, ESK eta CCOO sindikatuetako ordezkariek Irakeko gerraren kontrako plataforma sortu dute Arrasaten. Talde zabala izan gura dute, eta edozein alderdi, erakunde edo herritarrek parte hartzea.

Horrez gain, herritarrak mugiaraztea eta gerraren kontrako iritzia plazaratzea ere lortu gura dute. Horretarako, kale agerraldia deitu dute datorren martitzenean, hilaren 11n, Seber Altuben, 18:30ean.

**EKONOMIAN OINARRITUTAKOA**

Sindikatu horietako ordezkarien esanetan, Iraken kontra egin gura duten erasoa gerra ekonomikoa da, hain zuzen ere, petrolioa kontrolatzeko. /U.M.




U.M.

LABeko, ELAko, ESK-ko eta CCOOko ordezkariak, prentsaurrekoan.

ARETXABALETA

## Udalak alegazioak aurkeztuko dizkio Lurralde Zatikako Planari

Astelehenean, hilaren 10ean, Aretxabaletako Udalak ezohiko osoko bilkura egingo du. Udalbatzar horretan, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak egindako Lurralde Zatikako Planari aurkeztuko dizkioten alegazioak onartu beharko dituzte. Aretxabaletako Udalak, Gobernu batzordean gaia behar bezala aztertu ondoren, idatzizko hamar orrialdetan batu ditu Lurralde Zatikako Planari egin beharreko alegazio guztiak. Alegazioak aurkezteko epea martxoaren 31n amaituko da. A.L.

ESKORIATZA

## Amuska Bilbora joango da, egun pasa, Emakumearen Egunean

Emakumeen Eguna dela eta, Amuska emakume taldeak Bilbora irteera antolatu du. Arte Ederretako Museoa bisitatuko dute goizean eta, elkarrekin bazkaldu eta gero, arratsaldean norberak gura duena egiteko denbora izango du. Amuskak, bestalde, bihar iluntzean Arrasaten izango den *Gure eskubidea delako* lelopeko manifestaziora joateko dei egin die emakumeei. Martxoaren 7tik 14ra, berriz, *Euskadiko Mugimendu Feministaren Kartelak* izenburuko erakusketa egongo da ikusgai kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara. /A.G.

LEINTZ GATZAGA

## Sorginak emakume taldeak bazkaria egingo du bihar, martxoak 8

Martxoaren 8a dela aitzakia hartuta, herriko emakumeek bazkaria egingo dute bihar Gure Ametsan. Eguerdiko ordu batean elkartuko dira emakumeak jatetxean, eta ohiko argazkiak egin eta gero, bazkaldu egingo dute: sarrerakoak, arkumea eta postrea. Gero, bazkalostean dantzaldia izango dute, iluntzera arte. Era berean, hiru isuski banatuko dituzte oraindik isuskirik ez duten sorginen artean, eta, urtero moduan, maiatzean bidaia nora egin pentsatuko dute bazkarian. /A.G.

# Unibertsitate Arteko Txapelketa, abian

## Hirugarren aldia da antolatzen dutena, eta aurten MUk du ardura hori

**Euskadiko Unibertsitate Arteko Kirol Txapelketako lehenengo kanporaketa jokatu zuten, martitzenean, Mondragon Unibertsitateko eta Deustuko Unibertsitateko ikasleek. Hamaika modalitate ditu txapelketak. Modalitate bakoitzeko irabazleek Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleen aurka jokatuko dute finala, datorren eguaztenean, hilaren 12an. MUko ikasleek eskubaloiko, areto futboleko, errugbiko, eskupilotako eta paletako finalak jokatuko dituzte.**



XABI URZELAI

**Euskadiko Unibertsitate Arteko Txapelketan Mondragon Unibertsitateko 114 ikaslek hartu dute parte.**

Hirugarren urtea da kirol txapelketa antolatzen dena erkidegoko unibertsitateen artean, eta aurten Mondragon Unibertsitateak antolatu du txapelketa. Hiru unibertsitatek dihardute txapelketan: Mondragon Unibertsitateak, Deustuko Unibertsitateak eta Euskal Herriko Unibertsitateak. Unibertsitate bakoitzean kanporaketak egin ondoren, martitzenean jokatu zuten txapelketako lehenengo kanporaketa MUko eta Deustuko Unibertsitateko ikasleek.

Espero zen moduan, Deustukoak nagusitu ziren modalitate gehienetan, eta MUko ikasleak eskubaloian mutilek lortutako garaipenarekin konformatu behar izan ziren. Urte batetik bestera, ordea, maila hobetuz doa MU. Eta, bide batez, unibertsitateak duen ikasle kopurua kontuan hartuta, pozik daude lortutako emaitzekin. Bestalde, Deustuko Unibertsitateak ez du talderik areto futbolean (nesketan), errugbian, eskupilotan eta paletan. Horren ondorioz, modalitate horietan MUko ikasleak lehiatuko dira EHUko ikasleen aurka. Finalak eguaztenean, hilaren 12an, jokatuko dira, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arrasateko kirolguneetan. Irabazleak Unibertsitate Arteko Espainiako Txapelketarako sailkatuko dira.

**350 IKASLE GARAIPENAREN ATZETIK**
Guztira, hiru unibertsitateotako 350 ikaslek dihardute txapelketan. Hala, hamaika modalitateetako irabazleek maiatzaren 10era bitartean jokatuko den Espainiako Txapelketarako txartela lortuko dute. Bertan, 66 unibertsitatetako ikasleek hartuko dute parte. Eta guztiek ere helburu izango dute udan Korean jokatuko diren 27. Munduko Unibertsitate Jokoetarako eta neguan Italian jokatuko diren Neguko Jokoetarako sailkatzea. MUko ikasleendako gaitza izango da datorren eguaztenean jokatuko diren kanporaketak irabaztea. Izan ere, EHUk oso maila altua dauka. Edozelan ere, bigarren kanporaketan parte hartuko duten 49 ikasleek irabaztea dute helburu. Guztira MUko 114 ikaslek dihardute aurtengo txapelketan.

OXEL EROSTARBE

## *Kirolabur*

### FUTBOLA/DERBIA

Hil edo biziko derbia jokatuko dute domekan Aloñak eta Bergarak. Aloñak derrigorrez irabazi behar du, azken jardunaldietako emaitzek sailkapeneko azken hirugarren postura eraman dute-eta. Bergararrek, berriz, sailkapeneko aurreneko postuetara gerturatzeko ahalegina egingo dute. Partidua Azkoagainen izango da, 16:30ean.

### MENDIA/OÑATI

Martxoaren 17a eta 21a bitartean Mendi Astea antolatu du Aloña Mendiko Mendi Sailak. Hain zuzen ere, bost hitzaldi-proiekzio, erakusketa eta Pirinioetara irteera egingo dituzte. Pirinioetara irteera aste bukaera honetan bertan izango da. Urtero moduan, mendiko hastapenak ikasteko antolatu dute irteera hori. Parte hartzen dutenek, besteak beste, pioleta, kranpoiak eta elur-erraketak erabiltzen ikasiko dute.

### ESKUBALOIA/ARRASATE

Domekan, 11:30ean, partidu garrantzitsua jokatuko du AGR Arrasatek Iturripen. Hegialde Auto talde legazpiarra izango dute aurkari arrasatearrek. Eta hiru goleko aldeaz irabazten badute, igoera faserako sailkatuko dira. Arrasatearrak hirugarren daude sailkapenean eta legazpiarrak, berriz, bigarren. Aurreko astean sailkapeneko lehengo postuan dagoen Donibane Majestic taldearen aurka berdindu ostean (21-21), euren eskuetan dago igoera fasea jokatzeko sailkatzea.

## FOTOKIROLA




### Txirrindulariek jaso dute bedeinkapena

Domeka eguerdian Dorletan egon ziren Arabako eta ibarreko txirrindulariak, Amabirjinari lore eskaintza egiten. Abadeak bertan batutako txirrindulariak bedeinkatu zituen. Santutegian batutakoek gustura ikusi zituzten Bahamontesek, Ocañak, Indurainek eta Olanok Amabirjinari eskainitako kamisetak. Bedeinkapena jaso ostean luncha egin zuten. /O.E.




Ez baduzu inoiz Stressless® bat probatu, ez dakizu zer den atseden hartzeaz gozatzea. Stressless®-ko besaulkien eta sofen gamak, bere teknologia aurreratuari esker, zuk behar duzun erosotasun plusa eskaintzen dizu. Eta hamar urteko bermea duen Plus Sistema™ sistema esklusiboarekin. Ekornes®-ko Stressless-ek bakarrik eskainiko dizu hori guztia, eta, beste inor bezala, zure mugimenduei egokituko da. Zure morfologiari. Zure estiloari. Baita dekorazioari ere.

* Stressless®, Ekornes® talde norvegiarraren marka erregistratua da.

Zatoz eta ikus ezazu Stressless® Confort Gunea kontzesionario ofizialean:

Noche y Dia
Morfeoren besoetan
Atseden Etxea
Adriano VI, 17 • GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 21 42 24
EKORNES®

# e-debagoiena

ETORKIZUNA HURBILTZEKO TE ACERCAMOS EL FUTURO




*e-debagoiena* egitasmoak Komunikazio Gizartera hurbilduko gaitu.

Laster, Debagoieneko herritarrek proiektu horrek ekarriko dituen abantailekin baliatzeko aukera izango dute.

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA · Euskaltel · EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO · Goiena Komunikazio Zerbitzuak · MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA · MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko martxoaren 7a

Kultura eta aisialdia

Martxoaren 7tik 14ra

Bosgarren urtez, Mondragon Unibertsitateko Humanitate Fakultateak Literatura Astea antolatu du Eskoriatzan, martxoaren 10etik 14ra bitartean, udaberri partean izango den ezuste berezi batekin eta guzti.

Urtero, literaturaren gaineko gai konkretu bat aukeratzen dute arduradunek; eta aurten, literaturaren azpi-gai minoritario bat aukeratu dute, baina irakurle zein idazleak erakartzeko indar handienetarikoa duen bat: erotismoarena, hain zuzen ere.

Horretarako, HUHEZIk Euskal Herriko idazle ezagun eta bikainak ekarri ditu aurten ere: Juan Martin Elexpuru, Luisa Etxenike, Jasone Osoro, Paddy Rekalde, Juanjo Olasagarre, Pako Aristi… Mikel Markez musikagileak ere hartuko du parte jardunaldi baten. Horrez gain, ikasleek eurek ekitaldi berezi baten protagonista izango dira, euren aukerako testu erotikoak irakurri eta komentatuko dituzte-eta.

Idazle horiek guztiek hitzaldiak egingo dituzte, bai; baina, Literatura Aste guztietako dinamikari jarraituz, ez dira berbaldi soilak izango; alderantziz, hizlarien eta publikoaren arteko ideien hartu-emana eta jolasa sortuko dira.

Udaberrian, zehazteke dagoen egun baten, *post-data* esklusibo bat izango da. Unax Ugalde, Mikel Urdangarin eta Patxi Zubizarreta etorriko dira Eskoriatzara, *Hamar mezu eta dei bat* izeneko ikuskizuna eskaintzera. HUHEZIko arduradunek diotenez, "erotismoaren gainekoa baino gehiago, amodioaren gaineko lana da: pertsona batek beste bat seduzitu nahi du, eta horretarako testuak erabiliko ditu". Ikuskizun horrek badu beste berezitasun bat, hain zuzen ere, oso leku gutxitan antzeztu izan dela; izan ere, EAEko hiriburuez gain, Eskoriatzan bakarrik eskainiko dute.

Horrenbestez, sorkuntzaren arlo kitzikagarriena miatzeko aitzakia paregabea ematen digu HUHEZIk: erotismoa. /LEIRE KORTABARRIA

# *Literatura eta erotismoa*

Testu literarioen bidez,
irakurlea kitzikatzea, seduzitzea, haren irudimena indartzea
eta, era berean, zerbait berria irakastea



GOIO ARANA

LITERATURA/ **HIRU HITZALDI, MAHAI-INGURU BAT ETA UDABERRIAN ANTZEZLAN BEREZI BAT, AURTENGO LITERATURA ASTEAN**

# Hitzak eta sentimenduak biluzten

LITERATURA EROTIKOAREN GAINEKO GOGOETA BULTZATUKO DUTE HAINBAT IDAZLEK, HUHEZI-N, HILAREN 10ETIK 14RA ARTE

LEIRE KORTABARRIA

**Bai idazleak, bai eta irakurleak berdin erakartzen ditu literatura erotikoak. Hala ere, idazle batzuek onartu diguten moduan, literatura erotikoak Euskal Herrian gutxiendako eremu izaten jarraitzen du. Horretaz hausnarketa bultzatuko dute Literatura Asteko ekitaldiek.**

Literatura erotikoa ez da gauza berria, ezta euskaldun *hotz*-en artean ere. Juan Martin Elexpuru idazleak testu erotikoen antologia egin du, Literatura Astean banatuko duena, eta bertan, Etxepare, Oihenart, Xabier Lete, Jon Mirande, eta beste hainbat euskal klasikoren testuak daude.

Erotismoak literaturako azpigenero izaten jarraitzen du, zeharka begiratzen diren liburuak dira horiek oraindik; hala ere, genero erakargarrienetariko bat da.

### HELBURU DIDAKTIKOA

"Literatura erotikoak bere funtzioa du, testu komikoen edo beldurrezkoen moduan. Bere eginkizun nagusia da irakurlea kitzikatzea", azaltzen du Juan Martin Elexpuru bergararrak. Juan Martinek genero hori asko landu izan du: "Beste helburu batzuk ere betetzen ditu", gaineratzen du idazleak: "Adibidez, didaktikoa da, eta besteen fantasien berri ematen digu, geureak aberasten lagundu, aniztasun sexuala onartzen laguntzen digu... Hori bai, literatura erotikoa literatura da, ez sexologia", ohartarazten du.



HUHEZI

Maila handiko idazleak pasatu dira Humanitate Fakultatetik. Irudian, Bernardo Atxagak egin zuen hitzaldiaren une bat.

## Liburuen ordezkoak

**Juan Martin Elexpuru idazleak dioskunez, literatura erotikoa gutxienendako da, "literatura, orokorrean, gutxienendako delako". Hala ere, liburu horiek salmenta txukunak izaten dituzte; besteak beste, Txalaparta argitaletxeko Literotura bildumakoek.**

**Elexpururen azalpenen arabera, arazoa ez da jendeak erotismoarekiko interesik ez izatea, baizik eta "beste euskarri batzuk erabiltzen dituela erotismoa kontsumitzeko: Internet, CD-ROMak... Kontsumoa egon badago, baina ez literaturaren bidez".**

## Testu onak zelan idatzi

**Kalitatezko literatura erotikoa irakurtzea kitzikagarria den neurrian, testu erotiko eskasak irakurtzea aspergarria izan daiteke. Hala baieztatu digute Literatura Astean esku hartuko duten idazleetako batzuek.**

**Jardunaldietan, besteak beste, testu erotiko onen klabeak azalduko dituzte idazleek. Euren esanetan, "aurreikuspenetatik, errepikakortasunetik... ihes egin behar da. Bestalde, umorea eta ironia ere erabiltzen jakin behar da. Akzioak goraka joan behar du, lexiko egokia erabili behar da..."**

**JASONE OSORO** / IDAZLEA

## *"Sexuaz naturaltasunez idazten dut"*

**Jasone Osorok arrakasta handia izan zuen *Korapiloak* eleberriarekin. Orain dela gutxi, gaztelaniako bertsioa argitaratu da: *Desnudos*.**

**Literatura erotikoa naturaltasunez hartzen dugu?**

Orain arte Euskal Herrian ez da askorik landu; gizartean sexuaz asko egiten da berba, baina oraindik ez gaude horretaz irakurtzera ohituta.

**Erabaki egiten da sexuaz noiz idatzi?**

Nik neuk egoki denean jotzen dut estilo horretara, gauza natural moduan ikusten dudalako: pertsonen artean sentimenduak, haserrea, maitasuna... dauden neurrian, sexu harremanak eta erotismoa ere badaudelako.

**Sexua ikuspuntu desberdinetatik lantzen duzu... batzuetan, bortizkeriaz; xamurtasunez...**

Istorioak berak markatzen dit ikuspegi zehatza; abiapuntua da kontatu nahi dudana, eta pertsonaiek, istorioko giroak... erabakitzen dute ikuspegia. Izan ere, abiapuntua kontakizuna, istorioa da, ez ikuspegia.



Jasone Osoro idazle elgoibartarra.



**ARGITALPENAK/ MANKOMUNITATEAK 'BERRIAK' TURISMO BERRIPAPERA ATERA DU**

# 'Berriak': turismo albisteak

## IBARREKO TURISMO ADITUEI ZUZENDUTAKO BERRIPAPERAREN BIGARREN ZENBAKIA ATERAKO DUTE LASTER

LEIRE KORTABARRIA

**Debagoieneko turismo arloa bultzatu eta geroago eta informazio osoagoa interesa dutenen esku ipini guran, Mankomunitateko Turismo Ekintzetarako Zentroak proiektu berri bat jarri du abian: *Berriak* izeneko turismo arloko informazioa eskaintzen duen berripapera.**




LEIRE KORTABARRIA

Turismo Ekintzetarako Zentroaren berripapera euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzen da.

*Berriak* berripaperaren bigarren zenbakia prestatzen dabil dagoeneko Mankomunitateko Turismo Ekintzetarako Zentroa. Aurreko zenbakia bezala, mila ale argitaratuko dituzte, 500 euskaraz eta 500 gaztelaniaz. Bi hilabetean behin kaleratuko dute *Berriak*.

Lehenengoa joan den abenduan argitaratu zuten, eta ale batzuk eskuragarri daude oraindik Debagoieneko hainbat turismogunetan, batez ere, alojamenduetan, museoetan… Zenbaki horretan, udan Debagoieneko hiru turismo bulegoek izandako bisita kopuruaren berri ematen zaigu; era berean, ibarrean egin ditzakegun bisitaldi gidatuen gaineko informazioa dakar, baita azoken, argitalpenen… gaineko informazioa ere. Horrez gainera, Debagoieneko museoen, erakusketen… ordutegiarekin agenda praktiko bat ere badakar.

**BATEZ ERE, ADITUENDAKO**

Turismo teknikari Ana Erizek dioskunez, *Berriak* "turismo arloko profesionalei dago zuzendua, batik bat: Debagoieneko erakunde publikoei, hotelei, jatetxeei, erakusketen antolatzaileei, museoei… Bertan, informazio espezializatua eskaintzen diegu", azaltzen du.

Jakina, hasiera baten adituendako produktua den arren, publiko orokorrak ere izango du *Berriak*-i begiratu bat emateko aukera. Izan ere, esan bezala, informazio praktikoa ere badakar: "Museoetako-eta ordutegiak aldatu egiten dira sasoitik sasoira", dio Ana Erizek; hori dela eta, ez dator gaizki oroigarri bat izatea.

**IKASTAROAK, AZOKAK…**

Horrela, Debagoienean geroago eta pisu handiagoa duen turismo sektoreko adituek eta dinamizatzaileek bereziki eurendako egindako informazio iturria dute eskura. Era honetara, turismo sektorea geroago eta gorpuztuago dago Debagoienean.

Berripaper horretan, Mankomunitateak, orain arte turismo jarduera zelakoa izan den azaltzeaz gainera, sortzen joango diren ekimenen eta aukeren berri ere emango du, hala, ibarreko turismo ekintzaileei aukera handiagoak emateko. Esate baterako, abenduko zenbakian, promozio ekintzen, espezialitate jardueren, turismo azoken… berri ematen da, besteak beste.

**NIREAUKERA**




### 'LA TRAVIATA'
### Giuseppe Verdi

**Gustukoen dudan generoa antzerki musikala da, eta genero horretako maisurik handiena Verdi da, nire iritziz. Haren lanik ospetsuenetariko bat, *La Traviata*, oso gustuko dut; baina bereziki gomendatuko nuke 1958an Lisboan egindako grabazio bat, Alfredo Krauss eta Maria Callas kantariekin. Krauss hasiberria zen eta Callas, beteranoa, baina biek distiratzen dute; batez ere, Kraussek. Grabazioa bera ez zen ofiziala, baina gero, zuen kalitatea ikusita, ospetsu egin zen, eta ofizial bihurtu zen. Opera hobeto ezagutu nahi duenari disko hori aholkatuko nioke.** /L.K.



**Valen Moñux**

Bergararra da, eta musikan lan handia egin du, Bergarako Orfeoiko kide gisa.

LASAGABASTER
LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

# Martxoak 7-14

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## ANTZERKIA

### ARRASATE

► ***Ai, ama!* antzerki lana** izango da etzi, Amaia antzokian, 19:30ean.

### BERGARA

► ***Ai, ama!* antzerki lana** egingo du Hika antzerki taldeak bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan, 20:00etan.

## DEIAK

### ANTZUOLA

► ***Ipuin klasikoaren garrantzia* hitzaldia** egingo du Juan Karlos Alonsok eguenean, eskolan, 18:30ean.

► ***Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko** herri batzordea osatzeko batzarra izango da hilaren 11n, martitzenean, udaletxean, 18:00etan.

### ARRASATE

► ***Gure eskubidea delako* lelopean** kale agerraldia egingo du Amuska emakume elkarteak bihar, zapatua, 19:00etan.

► **Egunkaria aurrera! herri batzordea** sortzeko batzarra deitu dute hainbat herritarrek martitzenerako, hilak 11, udaletxean, 18:30ean.

### BERGARA

► ***La industrialización vasca* izenburuko hitzaldia** egingo du Eduardo Alonso adituak martxoaren 11n, martitzenean, Migel Altuna Institutuan, 19:30ean.

### DEBAGOIENA

► **Ibarreko Euskal Presoak Euskal Herrira taldeak** egindako zozketan 0834 zenbakia saritu dute. Saria Karibera bidaia da. Irabazleak dei dezala 677 38 82 47 telefonora.

### ELGETA

► **Tratu txarren gaineko hitzaldia** egingo du Emakundek gaur, egubakoitza, gaztetxean, 19:00etan.

### ESKORIATZA

► ***Literatura eta erotismoa*** gaiaren gaineko ekintzak antolatu ditu Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateak. Astelehenean, hilaren10ean, *Testu erotikoen gatza eta berakatza* hitzaldia egingo du Juan Martin Elexpuruk, 19:00etan. Martitzenean, hilaren 11n, *Naturaleza erótica* hitzaldia egingo du Luisa Etxenikek, 19:00etan. Eguaztenean, martxoaren 12an, *Literatura eta erotismoa* mahai-ingurua izango da, Jasone Osoro, Paddy Rekalde eta Juanjo Olasagarre idazleen eskutik, 11:30ean; eguenean, hilaren 13an, Pako Aristiren eta Mikel Markezen *Titulua* jardunaldia izango da, 19:00etan; eta datorren egubakoitzean, hilaren 14an, *Hitzak biluzten* saioa egingo dute ikasleek, 11:30ean.

### EUSKAL HERRIA

► ***Euskaldunon Egunkaria*-ri** laguntzeko kontu-korrontea dago zabalik: 3035 0092 56 0920055559 duzue zenbakia.

### LEINTZ GATZAGA

► **Emakumeen eguna ospatzeko,** herriko emakume taldeak bazkaria egingo du bihar, zapatua, Gure Ametsa elkartean, 13:30ean.

### OÑATI

► ***Adimen emozionalarekin heziz* izenburuko hitzaldia** egingo du Miguel Angel Morales adituak eguaztenean, hilaren 12an, Benedita-rretako areto nagusian, 18:30ean. Guraso guztiei zuzendutako hitzaldia da. Umezaintza zerbitzua egongo da.

► **Hileko odol ateratzea** egingo dute datorren egubakoitzean, hilaren 14an, Txantxiku Ikastolako areto nagusian (San Juan kalea 1), 18:00etatik 20:00etara bitartean.

► **Sagardotegira irteera** antolatu du Laixan euskara elkarteak martxoaren 15erako, datorren zapaturako. Txartelak salgai daude Laixanen eta Gurian.

## MUSIKA

### ARRASATE

► **Bertso saioa** izango da bihar, zapatua, Seber Altube plazan, 13:00etan. Ainhoa Agirreazaldegi, Jon Maia, Oihane Enbeita eta Jesus Mari Irazu bertsolariek hartuko dute parte.

### BERGARA

► **M.C.D. taldearen 25. urteurrena dela-eta,** kontzertua eskainiko du talde horrek gaur, egubakoitza, Jam



► ANTZERKIA

### ANTZOKIKO DEKORATUA MUSIKAZ ETA SOINUZ EGINDA DAGOENEAN

Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta, hainbat kultura ekitaldi antolatu dituzte ibarreko udal eta elkarteek. Horien artean, gaur, egubakoitza, Oñatin ikusteko aukera izango dugun antzezlana dago: Kirikoketa antzerki taldeak eskainiko duen *Zure aurpegia ikusi aurretik* lana. Oso lan berezia da; izan ere, emakume gazte itsu baten barne mundua biluzten du, eta dekoratua, ikusteko baino gehiago, entzuteko dago pentsatua, pertsonaiari egokituta. Gazte hori musika konposatzailea da; horregatik, dekoratuko elementuak musika bihurtzen dira guretako, eta neskaren emozioen eta bizipenen berri ematen digute. Aktorea bera ere, Bakarne Jorge legazpiarra, musika konposatzailea da.

**Non:** Oñatiko Santa Ana antzokian. **Noiz:** martxoaren 7an, egubakoitza. **Ordua:** 22:30ean. **Txartelak:** Zortzi euro.

LAN ESKAINTZA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak aldi baterako
ERREDAKTORE BI BEHAR DITU.
Batek prentsa idatzian jardungo du; besteak, telebistan.

Eskatzen da:
- Euskaraz idazten maila ona izatea.
- Ordenagailuak erabiltzen jakitea.
- Gidabaimena eta autoa edukitzea.

Eskaintzen da:
- Aldi baterako kontratua.
- Etorkizun handiko proiektuetan partaide izatea.
- Lanpostua lortzen ez duenak Goiena multimedia enpresaren (prentsa idatzia, irratia, telebista eta telematika) lan-poltsa osatuko du.

Interesatuok bidali curriculuma eta argazkia, martxoaren 13a baino lehen, ondoko helbidera:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
edo ibengoa@goiena.com

Nafarroa etorbidea 2
20500 ARRASATE
Goiena Komunikazio Zerbitzuak

M
MEMESA SL
Industri hornidurak
943 71 24 25





## SOULFLY TALDEAREN EMANALDIA JAM ARETOAN

Soulfly taldeak aurtengo bere bira europearrari ekingo dio, eta Bergarako Jam aretoan egingo du birako emanaldi bat, datorren eguaztenean, martxoak 12, 20:30ean. Amimishock metal estiloko talde bilbotarrak ere joko du, bere estreinaldi diskoaren aurkezpenean.

aretoan, 22:00etan. Ostiada Oi! eta Goiko Rock taldeek ere joko dute.

### ELGETA

► **Morau eta Agotas** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

### ESKORIATZA

► **Doctor Eslay** taldearen emanaldia izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

### OÑATI

► **Pernice Brothers (AEB)** taldearen kontzertua izango da datorren egubakoitzean, hilaren 14an, gaztelekuan, 22:30ean.

## ERAKUSKETAK

### ARRASATE

► **Fernando Biderbost** margolari bilbotarraren hainbat margolan egongo dira ikusgai Maalako Errabaleko Arregi markoztatze dendan, martxoaren 28ra arte.

### ESKORIATZA

► **Euskadiko mugimendu feministaren kartelen** erakusketa egongo da ikusgai kultura etxean, datorren egubakoitzera bitartean, 18:00etatik 20:00etara.

## LEHIAKETAK

### DEBAGOIENA

► **Bergarako Mendekoste jaietako** kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak. Edozeinek har dezake parte, 61 x 46 zentimetroko kartelak aurkeztuta. Derrigorrezko testua izango da *Pentekoste jaiak Bergaran. 2003.* Martxoaren 28a izango da parte hartzeko azken eguna. Bidali lanok Bergarako kultura etxera.

► **Kirol materiala euskaraz sortzeko** beka deialdia egin dute euskara eta kirol zerbitzuek. Argibideetarako, jo Debagoieneko udaletako kirol edo euskara zerbitzuetara.

## IKASTAROAK

### ARRASATE

► **Psikomotrizitate sentsibilizazio saioak** izango dira martxoaren 12an, eguaztenean, Ferixaleku-guneko seigarren solairuan, 16:45ean. Arizmendi Ikastolako irakasleendako.

### ESKORIATZA

► **Etxeko tertulien gaineko** jardunaldia egingo du Maite Garziak martxoaren 13an, eguenean, Arizmendi Ikastolako gunean.

# Zinema

### ARRASATE

**■ ALAI ZINEMA**

***El jardín de la alegría***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena eta martitzena: 19:00, 21:30.

**■ AMAIA ANTZOKIA**

***Para todos los gustos***
Eguena, zine kluba: 21:30.

### BERGARA

**■ NOVEDADES**

***Atrápame si puedes***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

***Hable con ella***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### OÑATI

**■ OÑATIKO ZINEA**

***Kamchatka***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Doraemon eta Hego Itsasoko piratak***
Zapatua eta domeka: 17:00.

***11.09.01***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### EIBAR

**■ UNZAGA**

***Daredevil***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

**■ RIALTO**

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

**■ GURIDI**

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Ocho millas***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 20:00, 22:30, 01:00.

***Hable con ella***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Daredevil***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Amor con preaviso***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Chicago***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 20:00, 22:30, 01:00.

***El pianista***
Egubakoitza: 17:30, 20:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

**■ MIKELDI ZINEMAK**

***Atrápame si puedes***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Ocho millas***
Egunero: 17:15.

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Las horas***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***El señor de los anillos: las dos torres***
Egubakoitza eta zapatua: 19:30, 22:45.
Domeka: 20:00.

***The ring: la señal***
Egubakoitzetik domekara: 23:00.

***Amor con preaviso***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***El planeta del tesoro***
Zapatua eta domeka: 17:15.

***Daredevil***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***El pianista***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***Hable con ella***
Egunero: 17:30, 20:15.

***La sonrisa de mi madre (J.B.A.)***
Egubakoitzetik domekara: 20:00, 22:45.

**■ FLORIDA-GURIDI**

***Las hermanas de la Magdalena***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.

***El jardín de la alegría***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Mi vida sin mí***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.

***A propósito de Schmidt***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Frida***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***La vida de nadie***
Egubakoitza: 17:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 22:30.

***Gangsters de Nueva York***
Egubakoitza: 17:30, 20:45.
Zapatua: 17:00, 20:15, 00:00.
Domeka: 17:00, 20:15.

***Novo***
Egubakoitza: 20:00.
Zapatua: 19:45, 01:00.
Domeka: 19:45.

**■ STER ZINEMAK**

***Chicago***
Egubakoitza: 18:15, 20:35, 22:55, 01:10.
Zapatua: 15:55, 18:15, 20:35, 22:55, 01:10.
Domeka: 15:55, 18:15, 20:35, 22:55.

***A propósito de Schmidt***
Egubakoitzetik domekara: 17:45, 20:15.

***Atrápame si puedes***
Egubakoitzetik domekara: 17:55, 20:50.

***Daredevil***
Egubakoitza: 18:30, 20:45, 22:55, 01:05.
Zapatua: 16:15, 18:30, 20:45, 22:55, 01:05.
Domeka: 16:15, 18:30, 20:45, 22:55.

***Gangsters de Nueva York***
Egubakoitza eta zapatua: 18:00, 21:15, 00:30.
Domeka: 18:00, 21:15.

***El maestro del disfraz***
Egubakoitza: 18:05, 20:00, 22:00, 00:05.
Zapatua: 16:20, 18:05, 20:00, 22:00, 00:05.
Domeka: 16:20, 18:05, 20:00, 22:00.

***Solaris***
Egubakoitza eta zapatua: 22:45, 00:50.
Domeka: 22:45.

***Amor con preaviso***
Egubakoitza: 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.
Zapatua: 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.
Domeka: 16:00, 18:10, 20:20, 22:30.

***Ocho millas***
Egubakoitza: 18:20, 20:40, 23:00, 01:15.
Zapatua: 16:05, 18:20, 20:40, 23:00, 01:15.
Domeka: 16:05, 18:20, 20:40, 23:00.

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitza: 18:25, 20:45, 23:00, 01:15.
Zapatua: 16:05, 18:25, 20:45, 23:00, 01:15.
Domeka: 16:05, 18:25, 20:45, 23:00.

**■ YELMO CINEPLEX**

***Atrápame si puedes***
Egubakoitza eta zapatua: 18:55, 21:35, 00:15.
Domeka: 18:55, 21:35.

***Frida***
Egubakoitza eta zapatua: 19:55, 22:15, 00:30.
Domeka: 19:55, 22:15.

***El señor de los anillos***
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 18:45.
Domeka: 11:30, 15:30, 18:45.

***The good girl***
Egubakoitza: 15:25, 17:30, 19:30.
Zapatua: 15:25, 17:30.
Domeka: 12:05, 15:25, 22:25.

***Amor con preaviso***
Egubakoitza eta zapatua: 15:25, 17:30, 19:45, 22:30, 00:30.
Domeka: 11:45, 15:25, 17:30, 19:45, 22:30.

***El planeta del tesoro***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:00.
Domeka: 12:00, 16:00, 18:00.

***A propósito de Schmidt***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:15, 21:50, 00:20.
Domeka: 11:40, 16:30, 19:15, 21:50.

***Harry Potter y la cámara secreta***
Egubakoitza eta zapatua: 15:55.
Domeka: 11:35, 15:55.

***Ocho millas***
Egubakoitza eta zapatua: 15:40, 17:50, 20:00, 22:10, 00:15.
Domeka: 12:10, 15:40, 17:50, 20:00, 22:10.

***Solaris***
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 17:50, 19:50, 22:00, 00:00.
Domeka: 12:10, 15:45, 17:50, 19:50, 22:00.

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitza eta zapatua: 15:50, 18:00, 20:05, 22:20, 00:35.
Domeka: 12:15, 15:50, 18:00, 20:05, 22:20.

***Daredevil***
Egubakoitza eta zapatua: 15:55, 18:05, 20:10, 22:25, 00:35.
Domeka: 12:15, 15:55, 18:05, 20:10, 22:25.

***The ring: la señal***
Egubakoitza eta zapatua: 22:10, 00:20.
Domeka: 22:10.

***Chicago***
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:40.
Domeka: 12:05, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30.

***Seguridad nacional***
Egubakoitza: 16:10, 18:00.
Zapatua: 16:10.
Domeka: 12:15, 16:10.

***Riesgo extremo***
Egubakoitza: 20:00.
Zapatua: 18:00.
Domeka: 22:30.

***Las horas***
Egubakoitza eta zapatua: 15:20, 17:35, 19:55, 22:15, 00:25.
Domeka: 11:55, 15:20, 17:35, 19:55, 22:15.

***Gangsters de Nueva York***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 19:20, 23:30.
Domeka: 11:30, 15:35, 18:45, 21:55.

***Kamchatka:* ●●●● | *Hable con ella:* ●●●● | *Atrápame si puedes:* ●●●●**

TXARRA:● ESKASA:●● BALEKOA:●●● ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

## KRITIKA

### GANGS OF NEW YORK

PUNTUAZIOA: ●●●

**ZUZENDARIA:** Martin Scorsese.
**AKTOREAK:** Daniel Day Lewis, Leonardo DiCaprio, Cameron Díaz.

Duda barik, Martin Scorsese gaur egungo zinemagile ospetsuenen artean dago. Gizon horrek biziro maite du zinema, zinema bere bizia da, eta horrexegatik film handiak, etorkizunerako geratuko diren horietakoak, lortzeko bila jarduten du. Hori lortzeko zinema egiteko era barroko eta handikiaren erabilerara, pertsonaia pilo batengana eta gatazka handiko istorioetara jotzen du. Oso zinema handizalea da, eta askotan ematen du ez dela egokitzen kontatu behar duen istorioetara, zeren istorioak baitira, askotan, zuzendariaren filmatzeko erara egokitu behar direnak. Scorsesek baditu itxurak eta edukiak bat egiten duten filmak; *La edad de la inocencia* esate baterako. Baina beste batzuetan, *Gangs of New York* dugu horren adibide, lortutako emaitzak oso erakargarriak eta momentu ederrekoak izan arren, irregularrak eta gehiegizkoak izaten dira.

*Gangs of New York,* bi ordu eta erdi baino pixka bat gehiagotan, XIX. mendeko bigarren erdian New Yorken izandako taldeen arteko gatazkak, borrokak eta gertakizun guztiak azaldu nahi dizkigun epopeia da. Filmak ekoizpen handiko klasikoen ildoa jarraitu nahi du. Film horietan, modu egokian batzen dira per-



tsonaia batzuen istorioa eta garai bateko begirada orokorra. *Lo que el viento se llevó* edo *Guerra y paz* dira adibide bikainak. Tamalez, Scorsesek ez du gauza partikularren eta taldeko gauzen arteko orekarik lortzen; garai horren deskribapen ikusgarriari pertsonaien intimitateari baino garrantzia handiagoa ematen dio. Horrela, lortzen den lanak koherentzia txikiagoa du eta askoz desorekatua gertatzen da.

Filmak baditu momentu bikainak: Daniel Day Lewis-ek DiCaprioren ohe aurrean egiten duen bakarrizketa, Day Lewis aktoreak Cameron Díazi labanak jaurtitzen dizkion eszena, edo hiriko aireko plano dotoreak. Filmeko beste momentu batzuek –hasierako borrokaldia edo bukaerako zati nahasiegia eta gehiegi apaindutakoa (ez dio pertsonaia nagusien arteko dueluari behar den etekina ateratzen)–, alderantziz, lanaren balioa txikitu egiten dute. Hala eta guztiz ere, bere bertute eta akatsekin, ikustea merezi duen filma da.

ANTONIO ZABALA

SARE İNMO f3 inmobiliaria
Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

## ETXEBIZITZAK

**ARRASATE**
- 98 m², 4 logela, oso eguzkitsua eta garajearekin.
- 113 m². Oso ondo dago. 5 urte ditu. Hiru logela, bainugela bi, 24 m²-ko garaje itxia. Erdialdean.
- 85 m². Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Goian 8 ganbara dauzka. Erdialdean.
- Txaleta salgai. Urtebete dauka. 267 m², hiru solairutan banatuta. Bi autorendako garajea, txokoa eta 600 m²-ko lorategia.

**ARETXABALETA**
75 m². Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela bi. Ganbara eta garajea dauzka. Oso eguzkitsua.

**ANTZUOLA**
75 m². Orain dela bost urte guztiz berrituta: leihoak, berogailua... Hiru logela, egongela eta bainugela. Ganbara dauka.

## ALOKAGAI
- **Arrasate.** 7 logela, 10 ohe, berogailua, egokitua. Langileendako egokia.

## GARAJEA
- **Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan erdialdean.

**ESKAERA HANDIAGATIK ETXEBIZITZAK BEHAR DITUGU SALGAI EDO ALOKAGAI.**

Korosti INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**Santi Kutz 8 • LEGAZPI**
**Tel.: 943 73 05 25**

**ANTZUOLA / Eraikitzen ari diren elkarri lotutako etxeak**
276.465,57 euro (46 milioi).
Semisotoa. Garaje handia eta txokoa.
Beheko solairuan: sukaldea, jangela, egongela, bainugela.
Lehen solairuan: hiru edo lau logela eta bi bainugela.
Teilatupeko solairua: m² ugari egokitzeko moduan.

**BERGARA / Etxebizitzak salgai**
- Koldo Elizalde 85 m²

**BERGARA / Tabernak salgai eta errentan**

**BERGARA / Lokalak salgai eta errentan**

**BASERRIAK**
- Angiozar: 200 m² x 3 solairu, 38.000 m²-ko lursaila, oso ondo kokatua.
- Ormaiztegi, Osintxu, Berastegi (baserria eta borda), Mutiloa, Elosu, Zegama, Asteasu.

**Etxebizitzak eta lokalak salgai edo alokagai behar ditugu.**

**OÑATI**
**ZUBILLAGAN 800 M²-KO INDUSTRIA PABILIOIA SALGAI 943 71 60 91**

**ARETXABALETA**
**TABERNA, HARATEGIA ETA PLATER KONBINATUAK DITUEN LOKALA SALGAI. 943 77 03 08**

**GASTEIZ**
**DIPUTAZIOA ALDEAN 110M²KO ETXEBIZITZA SALGAI. GARAJEA, GANBARA, OSO EGUZKITSUA ETA ERAIKIN ONA. 690 65 86 42**

# Iragarki sailkatuak

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**
**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 12 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Arrasate.** Etxebizitza salgai erdialdean. 113 m². Hiru logela, komun bat, sukaldea, despentsa eta "hall"-a. Berogailua, igogailua eta garajea. 943 79 23 58.

**Bergara** Etxebizitza saltzen da erdialdean. 943 76 58 52.

**Debagoiena.** Etxebizitza familiabakarra salgai. Marilorengatik edo Mari Carmenengatik galdetu. 943 31 17 18.

### 102. EROSI

**Bergara.** Etxebizitza txikia edo ganbara erosiko nuke, merketxo. 666 64 35 16.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen dut errentan Bizkaia kalean. 943 79 57 37.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan San Andres auzoan. 629 42 26 54.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan San Andres auzoan. Ikasleendako aproposa. Berogailua dauka. Hornituta. Oso eguzkitsua. 943 79 58 74 edo 655 74 35 08.

**Bergara.** Etxebizitza ematen dut errentan. 629 96 74 33 edo 656 75 05 97.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena.** Etxebizitza txikia hartuko nuke errentan. 635 71 12 88.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan. Sukaldea erabiltzeko aukera. 943 79 05 26.

**Arrasate.** Etxebizitza lortu gurako nuke. Beste batzuekin bizi izango nintzateke. 696 55 52 09.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garajea saldu edo errentan ematen da Araba Ibilbideko 27. zenbakian. 20 m² ditu, eta itxita dago. 943 79 69 83 edo 627 90 68 91.

**Bergara.** Bi garaje plaza salgai Burdiñaten. 609 47 94 43.

**ARAMAIO**
**JATETXE BATEN ZERBITZARIA BEHAR DA ASTEBUKAERETAN LAN EGITEKO. 686 06 72 97**

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Lokala ematen da errentan Espoloian, prezio onean. 943 76 16 89.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Emakumea behar da umea ikastolara eramateko eta, beharbada, etxeko lanak egiteko. 943 77 17 28.

**Arrasate.** Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 657 70 09 59.

**Arrasate.** Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 696 54 24 20.

**Arrasate.** Esperientziadun emakumea behar da hilean bi domekatan pertsona nagusi bat zaintzeko. 943 79 43 20.

**Bergara.** Neska bat behar da orduka lan egiteko, etxea garbitu eta bazkaria gertatzeko. 943 76 23 49 edo 943 76 97 05.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakumea gertu etxeko lanak egin, umeak zaindu edo pertsona nagusiak zaintzeko. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Mutil batek zerbitzari egingo luke lan. Arratsaldeetan eta aste bukaeretan. Esperientziaduna. 943 79 17 15.

**Bergara.** Emakume batek umeak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke, goizez. 943 76 23 09.

**Bergara.** Neska bat gertu edozein lan egiteko. 943 76 36 18.

**Bergara.** Pertsona zaharrak zainduko nituzke. 943 76 14 96.

**Debagoiena.** Neska gaztea gertu umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, egunez. 635 71 12 88.

**Debagoiena.** Sukaldari laguntzaile egingo nuke lan. Esperientzia daukat. 615 71 02 35.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Arrasate.** Laguntza eskola ematen da. 635 70 88 88.

**Bergara.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Ainhoa. 943 76 31 72 edo 605 76 32 72.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**BMW** F650/ST motoa salgai. Oso ondo dago. Prezio ezin hobea. 696 21 55 75.

**Honda** CR/250/Cross motoa salgai. 1991koa. 2.100 euro. 686 50 26 69.

**Opel** Corsa 1200 salgai. Merke. 646 41 66 99.

**Opel** Corsa 1400/16v/90ZP salgai. 2001eko abendukoa. 7.530 euro. Mari Jose. 943 76 37 61.

**Opel** Kadett autoa salgai. Oso merkea eta kilometro gutxi. IAT (ITV) urte osorako. Deitu damutu baino lehen. 699 11 83 63.

**Peugeot** 306/XSDT autoa salgai. Hiru ate. Matrikula: SS-BB. Prezioa: 7.200 euro, negoziagarriak. 686 97 62 73.

**Peugeot** 405 autoa salgai. Matrikula: SS-AD. 900 euro. 635 70 13 80.

**Renault** Laguna autoa salgai. 1998koa. Osagarriak ditu. Gasolinazkoa. 605 73 53 40.

**Renault** Laguna autoa salgai. Diesela. 55.000 km. 656 73 21 62.

**Suzuki** Bandit 400 motoa salgai, prezio onean. 639 48 81 91.

### 602. EROSI

**Montesa,** Bultaco edo Ossa markako mendiko motoa erosiko nuke. 656 75 76 98.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Dendako salmahaia.** Arropa denda, lentzeria, eta abarrendako egokia. 60 euro. 943 76 60 49.

**Kanpadendarako** sukaldea eta aluminiozko armairu tolesgarria salgai. 150 euro. 943 79 68 15.

**Korrika** egiteko zinta. Reebok markakoa. Estreinatu barik. Prezio interesgarria. 943 76 07 69.

**Piragua** salgai. Osagarri guztiekin. Josu. 945 44 54 11.

**Soinua** salgai. Parrot modeloa. 96 baxu eta zazpi erregistro. 943 78 13 93.

**Sukaldeko tresnak.** Bigarren eskuko sukaldeko etxetresna elektrikoak eta akumuladoreak salduko nituzke. 943 77 17 28.

### 802. EROSI

**Telefono txartela.** Movistar markako poltsikoko telefono batendako SIM txartela erosiko nuke. 656 75 76 98.

**Txanponak.** Mota guztietako txanponak eta bankuko billeteak erosiko nituzke. Deituz gero, bila joan naiteke. 945 44 50 44.

### 806. GALDU

**Aretxabaleta.** Urrezko bitxiak zituen poltsa galdu da. 619 45 97 46.

**Aretxabaleta.** Urrezko lepokoa galdu nuen otsailaren 27a eta 28a bitartean. 690 12 98 16.

**Arrasate.** Otsailaren 16an, urrezko ezkontza-eraztuna galdu nuen. "Gotzon 1999" jartzen du, eta Al-Andalus elkartean edo Musakola aldean galdu nuen. 656 76 02 83.

**Audifonoa.** Arrasate eta Aretxabaleta arteko bidegorrian audifonoa galdu nuen aurreko astean. 943 79 78 91.

**Gurpiletako kateak** galdu nituen Kanpanzarren urtarrilaren 31n. Centrax markakoak. Eskupekoa jasoko du entregatzen dituenak. 657 60 52 52.

**LAN BILA ZABILTZA? 943 444 509**

**LAGUNTZAILEA,** agentea edo justizia ofiziala. Deialdiak egingo dituzte laster. Euskal Herriko auzitegietan lan egiteko. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

**AIRE-KONTROLATZAILEAK.** AENAren deialdiak udaletan. Eskakizuna: diplomaduna edo lizentziaduna izatea eta ingeleseko maila ertaina edukitzea. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

**AUTOESKOLAKO IRAKASLEA.** Langabeziarik gabeko lanbidea. Diru sarrera oparoak. Presta zaitez. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

**BASOZAINA.** Egizu lan Euskal Herriko parke eta natura-erreserbetan. Eskatzen da: eskola-graduatua edukitzea. Presta zaitez. Adoz 943 444 509

**SUHILTZAILEAK.** Egizu lan Euskal Herriko parkeetan. Lan baldintza bikainak. Eskatzen da: eskola-graduatua edukitzea. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

**GARRAIOLARIA.** Lor ezazu trebakuntza-titulua, garraiolari profesional izan zaitezen. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

**ADMINISTRARI LAGUNTZAILEAK.** Laster deialdiak egingo dituzte zenbait udaletan. Eskatzen da: eskola-graduatua edukitzea. Presta zaitez. Adoz. 943 444 509

**UDALTZAINA.** Gertuko udaletan lan egiteko. Deialdiak egingo dituzte laster. Eskatzen da: eskola-graduatua edukitzea. Presta zaitez. Adoz. 943 444 509

**LIBURUTEGI LAGUNTZAILEA.** Zenbait udaletan. Deialdiak egingo dituzte laster. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

**ADMINISTRARIAK** (teknikoak zein laguntzaileak). Gertuko udaletan deialdiak zabalik. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

**GIDARIAK,** argiketariak, atezainak, langileak... Egizu lan udaletan mendeko gisa. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

## 9/ HARREMANAK

### 903. DEIAK

**Istripu bateko lekukoak** behar dira. Otsailaren 17an, Bergaran, Zubiaurren, Renault Clio zuri bati kalteak egin zizkioten. Kolpeak lagatako markak urdin kolorekoak dira. Norbaitek zerbait ikusi badu, dei dezala gertatutakoa argitzeko. Eskertuko da. 943 76 30 66.

Izan zaitez **Korrika** laguntzaile

**ARRASATEKO UDALAk Korrikan parte hartzera animatu nahi zaituzte.**

Zer egin dezakezun?
- Metroak erosi
- Kilometroak erosi
- Korrika egin

aek rekin korrika herri bat geroa lantzen

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**Euskara batzordea**

## AIPAGARRI

### Jose Mari Salegi

ARRASATE

Arrasateko Salegi harategiko Jose Marik hirugarren saria eskuratu zuen joan zen astean Bilbon jokatutako etxeko txorizoen lehiaketan. *Txarriduna* txerri-akademiak antolatzen du urtero lehiaketa hori, eta Euskal Herriko nahiz estatuko 123 parte hartzaile lehiatu dira aurten.



### Eskarne Mujika

BERGARA

Agota Kristof-en *Atzo* lana itzuli du Eskarne Mujika osintxuarrak, eta Alberdania eta Elkar argitaletxeen Literatura Unibertsala bildumaren barruan argitaratu dute. Aurretik, Kristof-en beraren *Koaderno Handia* lana ere itzuli zuen Mujikak. Bestalde, *Goenkale*-ko euskara arduradunetako bat da.



### Ibon Aranberri

ITZIAR

Iritegiko kobazuloko sarreran, Arantzazun, Ibon Aranberri itziartarraren arte lana jarri dute. Elkarri lotutako burdinezko panelez osatuta dago arte lan hori, eta goiko aldean zulo bat dauka. Kobazuloek "euskal identitatearen eraikuntzan" izan duten garrantziagatik aukeratu du Ibonek kokaleku hori.



KONTZEJUPETIK

## JAIOTAKOAK

**Yurema Regueiro Ferrero.** Oñatin, urtarrilaren 13an.
**Andoni Jiménez Cobo.** Bergaran, otsailaren 22an.
**Ainhoa Mugarza Terán.** Oñatin, otsailaren 22an.
**Igor Mugarza Terán.** Oñatin, otsailaren 22an.
**Xabier Arzelus Mariñelarena.** Bergaran, otsailaren 25ean.
**Daniel Casas Viana.** Oñatin, otsailaren 27an.

## HILDAKOAK

**M. Dolores Iruretagoiena Etxabe.** Arrasaten, otsailaren 26an. 95.
**Maria Juana Ezkurra Errasti.** Oñatin, otsailaren 27an. 88 urte.
**Juana Arana Berasategi.** Arrasaten, otsailaren 28an. 84 urte.
**Kontxi Ibarguren Soraluze.** Bergaran, otsailaren 28an. 64 urte.
**Maria Isabel Galdos Erle.** Arrasaten, martxoaren 2an. 87 urte.
**Salustiano Lezeta Altube.** Eskoriatzan, martxoaren 2an. 84 urte.
**Mercedes Goñi Gorriz.** Arrasaten, martxoaren 4an. 55 urte.
**Julia Serrano Melero.** Arrasaten, martxoaren 4an. 92 urte.
**Manuela Antonia Egurrola Azpeitia.** Eskoriatzan, 4an. 79 urte.
**Pascual Gutiérrez Rubio.** Eskoriatzan, martxoaren 5ean. 67 urte.



**Nahia Sáez García**
Arrasate • Martxoaren 2a • 3,125 Kg. Gurasoak: **Javi Sáez** (Kanariak) eta **Yolanda García** (Arrasate). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Lander Irazabalbeitia Fernández**
Arrasate • Martxoaren 5a • 3,900 Kg. Gurasoak: **Eneko Irazabalbeitia** (Arrasate) eta **Puri Fernández** (Bergara). Argazkian, umea aitaren besoetan.



**Oier Uribarren Arteaga**
Arrasate • Martxoaren 4a • 4,000 Kg. Gurasoak: **Edurne Arteaga** (Arrasate) eta **Mikel Uribarren** (Aramaio). Argazkian, umea aitaren besoetan.

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez GOIENKARIAren ordezkaritzetako batera.



GOIENKARIA
Astero 21.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 75 €.

URTEURRENA

Jesus
Jauregi Alberdi

Lehen urteurreneko meza
domekan, martxoaren 9an,
11:30ean,
**Antzuola**ko Errukizko
Amaren eliza nagusian



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Facundo
Sarasketa Ojanguren

Lehen urteurreneko meza
domekan, martxoaren 9an,
12:00etan,
**Elgeta**ko parrokian.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Jesus Mari
Arietaleanizbeaskoa Ziarsolo

Lehen urteurreneko meza
domekan, martxoaren 9an,
11:30ean,
**Bergara**ko Sierbetan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Kontxi
Ibarguren Soraluze

**Bergara**n hil zen
2003ko otsailaren 28an,
64 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Pablo Ibarra Iriondo
Fernando Gardoki Mujika



Lehen urteurreneko
meza domekan,
martxoaren 9an,
11:30ean, **Bergara**ko
Sierbetan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

IV. URTEURRENA

Juan Jose
Garmendia
*"Yanyo"*

Gogorra izango da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko
baina bizitzen garen artean
ez zaitugu, ez, ahaztuko.



ZURE LAGUNAK

**GAZTE TXARTELA MULTI**
**Ezin da gehiago eskatu?**

16tik 25 urtera badituzu, hona zer-nolako abantailak dituzun, Euskadiko Kutxaren Multi Gazte Txartela erabiltzearren:

**1/ Abantaila eta deskontu** handiak Europa osoan erosketetan, bidaietan eta ikuskizun museo eta kontzertuetarako sarreretan. Gainera, mundu osorako balio duen bidai **asistentziarako ASEGURUA DOHAINIK.**

**2/** Mundu osoko 3 milioi establezimendutan baino gehiagotan ordaindu ahal izango duzu, eta opariez alda daitezkeen **Travel puntuak** pilatu.






**3/** 800.000 **kutxazain automatikotan** baino gehiagotan atera ahal izango duzu dirua: komisiorik gabe Euskadiko Kutxaren kutxazain guztietan, eta EAEtik kanpoko Servired kutxazainetan.

**4/ Telebanka** (banku telefonikoa) eta **Caja Laboral Net**-erako (Internet bidezko bankua) zuzeneko sarbidea, zauden tokian zaudela eragiketak eta kontuei buruzko kontsultak egiteko.

**5/ Telefono mugikorra eroso-eroso kargatzea,** kutxazainen edo interneten bidez.

**6/** Multi Gazte Txartelak **ez du aparteko kosturik, ezta mantentze-kuotarik ere.**

**7/ Gazte Kontuaren Zerbitzuarekin,** interes-tasa txikiagoko kredituak izango dituzu ikasketerako eta hipoteka-maileguetarako. Gainera, Gazte Kontuaren **901 200 000 telefonoan ikasketa eta lanbiderako laguntza eta orientabide-zerbitzua duzu, nahi duzun horri buruz informatzeko:**
Enplegua eta autoenplegua nola bilatu.
Zer ikasketa aukeratu: lanbide-heziketa, masterrak, graduatu ondoko ikasketak, bekak eta laguntzak...
Ordaindutako praktikak hoteletan, enpresetan lan egitea eta Aur-Pair.
Hizkuntza-ikastaroak.
Langai "Kolokaziorako Euskal Zerbitzu"rako sarbide zuzena.
Borondatezko lana, auzo-landegiak,...
Prestakuntza- eta aisialdi-jarduerak.

**8/** Eta azkenik, **Newsletter aldizkari digitalaren harpidetza dohainik.** Hamabostero jasoko duzu posta elektronikoaren helbidean.

Informazio gehiago jasotzeko, kontsulta ezazu Euskadiko Kutxaren web-orria (www.cajalaboral.es) edo deitu 901 200 000 zenbakira.

# Gazte-txartela
## gazte altxorra

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



## ‘Harmailatik tertulia’

ASTELEHENA / **21:15**

### Lehen mailako euskal futbol taldeak eztabaidagai

Kirol taldeen gainbegiratua egin ondoren, *Harmailatik* saioaren bigarren tartean tertulia da nagusi. Mahaiaren bueltan elkartzen ditu astero Julen Iriondok ibarreko hainbat tertuliakide.



## ‘Iparrorratza’

MARTITZENA / **20:30**

### Denen ahotan dabilen lurralde batera

Irakera bidaiatuko dugu aste honetan, gerra dela eta ez dela denen ahotan dabilen herrialdera. Kontu kontari, hango bizimodua ondo ezagutzen duen Aitor Zabaleta gonbidatu du Julen Arangurenek.



## ‘Herrilan’

EGUAZTENA / **20:30 eta 21:15**

### Victoriano Gallastegi, bigarren txandan

Dagoeneko Debagoieneko alkate guztiak izan ditugu *Herrilan* saioan. Hortaz, Alberto Gorritibereak bigarren aldiz gonbidatu ditu bergararrak saiora, eguaztenean, 20:30ean.



## ‘Iluntzean’

EGUENA / **21:15**

### Txaro Arteaga hurretik ezagutuko dugu

Bigarren saioa beteko du Aintzane Gardokik zuzentzen duen *Iluntzean*-ek. Aste honetan ere pertsonaia ezagun bat etorriko da gurera: Txaro Arteaga, Emakundeko zuzendaria.

## TELEBERRIAK

### Zilarrezko Gehitu saria EITBko albistegiei

Gehitu Euskadiko gay eta lesbianen elkarteak Zilarrezko Gehitu saria 2002 eman die EITBko albistegiei. Hain justu, Gehitu elkartearen mezuekiko Euskal Irrati Telebista taldeko albistegietako lantaldeak erakutsitako prestutasunagatik eta haiekiko erakutsitako harmenagatik eman die saria.

### ETB2ko gaueko ‘Teleberri’ saioak bezain besteko audientzia izan zuen ‘Michael Jacksonekin bizitzen’ dokumentalak

Michael Jackson izar estatubatuarraren bizitzaren gainean ETB2k astelehenean eskaini zuen dokumentala berbetarako gai izan da oraingo astean. Jackson-ek bere bizitzaren gaineko gorabeherak kontatu zituen kamera aurrean. Eta aitorpenek ikusentzuleen arreta bereganatzea lortu zuten. Izan ere, Erresuma Batuko Granada telebistak ekoiztutako saioa oso jarraitua izan zen. Hain justu, une hartan telebistaren aurrean zeuden %21,4k ikusi zuten (182.000 lagun). Julio Ibarrak aurkezten duen *Teleberri 2* albistegiak besteko audientzia izan zuen dokumentalak. Edozelan ere, beste behin, T5eko *C.S.I.* saio arrakastatsua izan zen ikusiena, hura %39k ikusi zuten-eta Euskal Autonomia Erkidegoan; hau da, 351.000 lagunek.

## ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Martxoaren 7tik 13ra

| EGUBAKOITZA 7 | ZAPATUA 8 | DOMEKA 9 | ASTELEHENA 10 | MARTITZENA 11 | EGUAZTENA 12 | EGUENA 13 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Sarrera doan**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Soinuz blai**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Astebete**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Soinuz blai**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Astebete**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Harmailatik tertulia**<br>14:30 **Iparrorratza**<br>16:00 **Mahainguru berezia: Egunkariaren auzia**<br>17:00 **Sarrera doan**<br>17:30 **Iluntzean: Julio Ibarra**<br>18:00 **Soinuz blai**<br>18:30 **Astebete** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Harmailatik tertulia**<br>14:30 **Iparrorratza**<br>16:00 **Mahainguru berezia: Egunkariaren auzia**<br>17:00 **Sarrera doan**<br>17:30 **Iluntzean: Julio Ibarra**<br>18:00 **Soinuz blai**<br>18:30 **Astebete** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Astebete**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Soinuz blai**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Harmailatik**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Harmailatik tertulia**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Harmailatik**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Harmailatik**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Harrmailatik**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Harmailatik tertulia**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Iparrorratza**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Soinuz Blai**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Iparrorratza**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Soinuz blai**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Iparrorratza**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Soinuz blai**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Herrilan Eskoriatza**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Herrilan**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Herrilan**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Herrilan**<br>23:15 **Amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Herrilan**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Herrilan**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Sarrera doan**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Iluntzean: Txaro Arteaga**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Iluntzean**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Emisio amaiera** |
| 20:30<br>**Astebete** | 16:00<br>**Mahaingurua** | 17:30<br>**Iluntzean** | 21:15<br>**Harmailatik** | 20:30<br>**Iparrorratza** | 20:30<br>**Herrilan** | 21:15<br>**Iluntzean** |

**GOIENA TELEBISTA /** Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

Adi,
**GOITB Oñatin UHFko 28.**
kanalean!

GOITB etxean sintonizatzeko arazorik baduzu, jar zaitez zure ohiko antena-teknikariarekin harremanetan.

Goitb Goiena Telebista

*Ikusiko duzu!*

## TELEBEGI/ Oihana Elorza

### *Gaur zer botatzen dute?*

*Egunero*-k ongi aski ekarri duen bezala, *Euskaldunon Egunkaria* itxi dute, baina ez dute isildu. Lehen baino ozenago hitz egiten du orain. Eta lehen baino belarri gehiagotara iristen da, gainera, bere ahotsa. Askoz gehiagotara.

Milaka irakurle gehiago eta ehunka harpidedun berri.

*Euskaldunon Egunkaria*-ko langileak ez dira kikildu eta lanean dihardute. Ez dute atsedenik hartu eta *Egunero* erditu dute denen artean. Anaia zaharraren inguruko notiziak jaso ditu jaioberriak lehen aleetan. Baina, haren eredu berdina jarraitu, eta gorpuzten hasi da. Dagoeneko Euskal Herria, ekonomia, mundua, kirolak, kultura eta agendaren berri ematen digu, besteak beste.

Eta telebistari ere eskaintzen dio tartea. Orrialde osoa. Lehen bezala, *Euskaldunon Egunkaria*-n begiratuko dugu telebistan zer dagoen, eta merezi badu, ikusi.

*Egunkaria*, aurrera!


SAVE THE DOLPHIN
publidenak.
Puzzles
publidenak.
Zerbitzuaren kalitatea
Era guztietako publizitate-artikuluen fabrikazioa, markaketa eta banaketa.
Edozein kopuru. Epe laburrak.
Aurrekontuak konpromiso barik.
Erakusketa zabala.
• Enpresetara bisitak
• Enpresa-opariak
• Promozioak
• Publizitate-artikuluak
• Gabonetarako otarrak
• Artikulu pertsonalizatuak
• Diseinua. Arte grafikoak.
• Fotokopiak zuri-beltzean eta koloreetan.
• Estanpazioak kamisetetan eta txapeletan.
• Koadernatzeak eta plastifikatzeak.
• Trofeoak. Txapela bordatuak.
• Era guztietako errotuluak.
• Seinaleak, plaka ofizialak.
• Pankartak eta banderak.
• Laser bidezko markaketak, serigrafia, transferrak, termograbaketak eta bordatuak
HELBIDE BERRIA:
ARRASATE PASEALEKUA 8
ARRASATE
TEL.: 943 77 06 09 (4 linea) FAXA: 943 71 23 77
www.publidenak.com
POSTA-E: publidenak@euskalnet.net

**Goienkaria**©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
**Aretxabaleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 21.500 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2003ko martxoaren 7a

*Atzeskua*

MAIDER OSA

# Joxe Bixente Etxabe/Muxibarko artzaina

**Zelakoa da artzainaren lana urte-sasoi honetan?**
Dezenteko lana izaten dugu. Bildotsak jaiotzen ari direnean-eta, gauetan kortara behin baino gehiagotan joan beharra dago. Goizeko hiruretan, goizeko seietan, gaueko azken orduan ere bai... Horrelako lanak egin behar izaten ditugu orain. Ardien txabola etxetik 100 bat metrora dugu, eta bueltaka ibili beharra dago egunero.

**Bildots ugari jaioko zitzaizkizun honezkero!**
Bai, asko jaio dira. Ardi gehienek egin dituzte dagoeneko. Hamar-edo bakarrik falta dira. 120 bat ardik egin dituzte bildotsak.

**Dena dela, bildotsen prezioa dela-eta kexu izango zara zu ere...**
Bildotsak, orain dela hamabost urte ere, oraingo prezio berdintsua zuen, 500 pezeta inguru. Eta orain ere, antzerako prezioa du plazan: 450-500 pezeta inguru. Harakinak Ordiziako azokan bildotsak hartzen duen salneurriarekin ibiltzen dira, hori ordaintzen dute. Hortaz, gure moduan 100 ardi inguru dituenak oso jornal txikia du.

**Gazta ere egiten duzu?**
Semeak eta biok egiten dugu. Dena dela, hemendik eta maiatzera bitartean esnerik gehiena saldu egiten dugu. Gero, mendira joatean, han egiten dugu gazta.

**Hemendik pare bat hilabetera joango zara Degurixako txabolara, ezta?**
Bai, San Isidrotan igoko gara mendira.

**Sasoi baten, artzainok oinez igotzen zineten mendira. Gaur egun, berriz, 4x4 ibilgailu ederrarekin!**
Ardiekin oinez joaten gara, baina bestela, beti *lanroberrean*.

**Ikusten dudanez, sasoi bateko artzainen eta oraingoen bizimodua asko aldatu da!**
Orain dela 68 urte joan nintzen ardiekin mendira aurrenekoz, 13 urte nituela. 44 ardi eta txerri bi eraman nituen.

**Gaztea bazina, aldatuko zenuke artzain lanbidea beste bategatik?**
Hemen ez dut artzaintzan ibiltzeko erraztasunik ikusten. Ni ere ordubeteko bidean ibiltzen naiz orain, ardiak belardira eramateko.

**Gazteak ere ez dira animatzen ardiekin lanean hastera...**
Ardiekin ibiltzeko, laguntasuna behar da inguruan. Baina gaur egun ez dago ardiekin lanean ibili gura duen familiarik.

**Orduan, ez diozu etorkizunik ikusten artzaintzari.**
Ezta arrastorik ere.



**“Bildotsak, orain dela hamabost urte ere, oraingo prezio berdintsua zuen”**

**“Hemendik eta maiatzera bitartean esnerik gehiena saldu egiten dugu”**

**“Orain dela 68 urte joan nintzen ardiekin mendira aurrenekoz, 13 urte nituela”**

► *Arrasatearra / 80 urte / Artzaina*

## PIPERRAUTSA

## *Begibakar*

Egunkariarenak bi arazo nabarmendu ditu, bereziki. Bat, Espainia dagoela faxismoak jota. Bi, euskalgintzak ez duela lagunik komunitate abertzaletik kanpo.

Joan den astean aipatu nuen lehena, eta harrezkero ikus/irakur/entzun direnek berretsi egin dute orduan idatzitakoa. Guk pairatzen ditugu ondorioak baina haiek daude gaixo. Nahikoa da entzutea bost minutuz edozein tertulia, gaitzaren larritasuna igartzeko.

Baina bigarren arazoa guri dagokigu eta ez da arinagoa. Euskaldunak ari gara bakarrik gelditzen. Eta egia bada etsai indartsuak ditugula trabak jartzen, ez da gezurra geu ere norabide berean aritu garela, isolatuta gelditu garen arte.

Euskalgintza antolatua oso endogamikoa da, zirkuitu itxian bizi da. Eremu sozial urriagoa du euskarak berak baino, eta alderantziz behar zuen. Euskalgintza zer denik ere ez dakite gure arteko bi herenek. Ezin arduratu ezagutzen ez denaz.

Larriagoa da euskalgintzak izan duen begibakarreko ikusmena. Poliki baina etengabe, euskalgintza lerratuz joan da abertzaletasunarekin, eta honen jarrera gogorrenekin. Egon badaude abertzale ez diren euskaldunak, baina euskalgintzan apenas dute lekurik. Besteak beste, euskalgintza begibakarrak ez dituelako indarkeria batzuk ikusten. Ezin du eskatu ematen ez duenak.

Begi biak ireki, burua zabaldu, besteengana hurbildu, lagunak egin... Goazen.

MIKEL IRIZAR

iKER
SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

SUKALDE ERAKUSKETA
Udala Plaza z/g • Tel.: 943 79 00 43
BAINU ERAKUSKETA
Zarugalde 52 • Tel.: 943 79 99 42
ARRASATE

FAGOR

